



...eta **kitto!**

763 zkia. 2011-V-13

ASTEKARIA

TOKIKOM

Alkatetza eskuratzeko zaz- pi udal hautagai



277€
BETAURREKO
PROGRESIBOAK

mó
HAPPY
lens
BETAURREKO
PROGRESIBOAK
zerikantzen erantsiarekin



Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIOPTICAS
lehen a zerbitzu optikoetan



IRAZABAL
clínica dental



Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.
Tel. 943 208552

Badirelako gauza batzuk galtzea komeni ez direnak...
IRAZABAL KLINIKAN txikienen aho-hortzetako
prebentzioaren alde egiten dugu apustu.
Egizuz PADI-ren azterketak.

CARMEN LARRAÑAGA

Eibarko Akadetzarako PPren hautagaia

Eibarko gizartearen sorreraren, garapen eta ongizatearen mailarik gorenetara eraman nahiko nuke.

Zugan sinesten dut, zure talentuan, eronkak gaitzetzeko duzun gaitasunean, beste pertsona batzuekin bai eginda, denon artean gizarte hobea bat sor dezagun.

Sinesten dut Eibarko enpresetan, lanpostuak sortzeko duten gaitasunean, jardura ekonomikoan eta aurrerapenean.

Sinesten dut gizarte honetan, gure balioetan, gure nortasunean, gure kulturari. Sinesten dut Eibarren. Eta usie dut Eibar gehiuz, borondateak, ilusioak, gaitasunak eta talentuak batuz erakitzen dela.

BOZKATU CARMEN LARRAÑAGA



eibar
mugitzen ari da

www.pdgiprotokoa.com



**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Adrian Alvarez

Maider Aranberri

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi, Silbia Hernandez eta Ander Saleg

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76**AZALA:**

J-L. Gorostegi

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHTA:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen

aldizkarian adierazitako esanen

eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

HARTAKOTZAT EGON.- Norbere burua zeozertzat izan. "Hartakotzat nago neu behintzat, ondrauen artian".**HARTANTXE EGON.-** Norbaitek esandakoarekin bat etorri, ados egon. "Neu be hartantxe nago, egixa dala diñuana".**HARTZAKO.-** Hartz jauna, ipuinetan. "Honetan agertu zan Hartzako, hanka biren gaiñian".**HARTZANA.-** Antzina motxailek hartzarekin egiten zuten kantuaren izena. "Aratostietan hartzana juaz, zeroien katetik, herriko gizon zatar bat".

ESKUTITZAK

IEUPELE DANORRI

Udaberrixakin batera heldu da Eibarrera San Juan suaren berua; heltzeko dagozen fetxak dira. Eta urteroko moduan Jaixak Herrixak Herrixandako batzordiak aurten be jai herritarren aldeko apustua egingo dau. Horregaittik danori parte hartzeko deia nahi detsuegu, ongi etorrixak izango zarie-eta: barixakuero 19.30tan batuko gara Monteka tabernako parkian. Honekin batera, lehiaketa bat martxan ipiñi dogula jakinarazi nahi dogu:

urtero etarutzen diran kamiseta koloretsuei diseiñua egittia. Baldintza bakarra Jaixak Herrixak Herrixandako lema idatzita egotia da; beraz, astindu irudimena eta animau parte hartzera! Ekaiñaren 3a baiño lehenago jasoko dittugu proposamen guztiak kamisetak sasoiz egiñ ahal izateko. Besterik barik, gaur bertan egongo garalakuan agurtuko gara.

JAIXAK HERRIXAK HERRIXANDAKO

BIDE ALDERI, ESKERRIK ASKO!

Aurreko barixakuan, Illunabarrian programaren barruan, Bertso-afaria antolatu zuen ...eta kitto! Euskara Elkartea Bide Alde elkarte gastronomikoan. Aurten ere, bertoko sukaldari eta laguntzaile finek ez digute kalerik egin eta demaseko afaria prestatu zi-

guten bertaratu ginen guztiontzat; betiko moduan, umore onez, pazientziarekin eta irribarrea ahoan. Horrela lan egitea gozagarria delako, eskerrik asko Bide Alde ...eta kitto! Euskara Elkarteko izenean.


...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA*asteko***HEMEROTEKA***esaldiak*

"Bankuak erortzen lagatzeak eragin digu krisitik beste herrialde batzuk baino azkarrago iritezka. Horrek mesede egin dio sektore teknologikoari: bankuek orain arte ingenieria eta informatikako talentu onenak fitxatzen zituzten, gehiago ordaintzen zutelako. Talentu guzti hori orain enpresa teknologikoen esku dago. Banku sistema handi bat zulo handiagooa besterik ez da, ekonomiaren sektore sortzaile izan daitezkeenak itoaztzen ditueno"

(Olafur Ragnar Grimsson, Islandiako presidentea)

"Zortzimilakoen lasterketak ez du goia jo oraindik; bada zentzugabekeria horri etekina ateratzen dionik. Mito horri kosta ahala kosta eusten ari gatzazkio, berdin zaigu 71 urteko batek egiten duen modu berean igo nahiz 13 urteko batek egin duen bide bera jarraitu, itsu batek ala hanka biak falta dituen batek. Gure barruak betetzeak baino gehiago arduratzen gaitu gure egoa asetzeak: gehiago bizi gara berba egitetik entrenamenduetatik baino"

(Alberto Iñurrategi, goi-mendiak)

**EIBARKO UDALA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO****KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)****Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria**

a u t u a n

MUSEUAREN EGUNA

Eguaztenian, hillaren 18xan Museuen Nazioarteko Eguna ospatuko dabe gurian ez eze munduko museo gehixenetan be eta horren harira gaur, 19.00etan hasitta, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako gitarra ikasliak emanaldixa eskinduko dabe Portaleko 5. pisuan, Ana Caballero irakasliak zuzenduta. Bide batez, Eibarko Museuaren bigarren fasia zabaldu zala urte bi betetzen dirala ospatuko dabe. Eta hillaren 18tik 22ra, "Oroitzapenaren liburua" egingo dabe bisittan juandakuen testimonixuak batuta. Bilobekin lagunduta doiazan aiton-amonak, gainera, ez dabe sarrerarik pagauko.

ERRESKATE-TXAKURREN JARDUNALDIXAK

Ucas Arrate erreskate-salbamendurako txakur unidiadiak antolatuta, asteburuan horren gaineko jardunaldi berezixak hartuko dittu gure herrixak. Bestiak beste Asua Errekan zein San Andres pasialekuan txakurrekin jendia zelan topau eta beste kontu batzuk ikusteko aukeria emongo deskue Eibarko taldekuak zein jardunaldixetarako kanpotik etorritakuak.

AURREKO ASTEBURUAN ELGOIBARKO KULTUR ETXIAN EGINDAKO DEBABARENKO EMAKUMIEN LEHELENGO TOPAGUNE INTERKUTURALA "arrakastatsua" izan dala azaldu dabe antolatzailliak: "Bertan 59 andrazko alkartu ziran, eta horretatik 12 Debabarrenako zein Gipuzkoako beste lurraldietako hainbat alkarteko ordezkariak ziran". Alkartietako ordezkariak aittatuta, honetxek dira topagunera juandakuen perfillak: Hai-zea (Elgoibar, alkarte kulturala), Zabaltzen Sartu (Elgoibar, gizarteratziaren aldeko alkartia), Elgoibarko Emakumien Asanblea (Elgoibar, feministak), Miski (Elgoibar, Cuzco-ko haurren garapenaren aldeko GKE), Safa (Eibar, andra musulmanen alkartia), Lacasiun (Eibar, andra latindarren alkar-



tia), Altzoa (Eibar, alargunen alkartia), Pagatxa (Eibar, ekimen sozio-kulturalak bultzatzeko alkartia), Defibel (Eibar, Fibromialgia eta astenia kronikuaren inguruko alkartia), Garaipen (Errenteria-Donostia, andra euskaldun eta etorkiñen alkartia), Bekoz Beko (Pasaia, berdintasunaren alde eta genero indarkerixaren kontrako alkartia) eta Hitzez (Itziar, landa eremuko andren alkartia). Eurekin batera eta alkarlanian jardun eben bestela, jardunaldixan parte hartzera animau ziran herritarrak, Debegesako teknikariak

eta Udaletako bardintasun arloko ziñegotzi zein bestelako agentiak.

Lan-taldietan biharrian jardun eben danak eta, amaierarako, aurrera begira egitteko ekimenak eta horretxan inguruko lehenetasunak danen artian adostu zittuen. Bestiak beste alkartien arteko alkarrekiko ezagutza sustatzeko premiñia ikusi eben, billera eta bestelakuen bittartez. Bultzatu biharrekuen eta dittuen premiñen zerrendan, barriz, kultura ikastaruak antolatzia, bertako hizkuntza ikastia, erlijioño diferentien gaiñeko ezagutza eta onarpena bultzatzia, inmigraziñuaren inguruko ikuspegi positibua plazaratzia eta beste hainbat jaso dittue.

BARREN astekarirako KAZETARIA BEHAR DA

ESKATZEN DA:

Jardunaldi osoko kazetari lanpostua, ametasun baimena betetzeko.

ESKATZEN DA:

- Euskara maila ona; ghoz eta idatziz.
- Kazetaritza testuak idatzeko gaitasuna.
- Lantaldean lan egiteko gaitasuna.
- Informatika ezagutzak: Quark Xpress.

BALORATUKO DA:

Elgoibar edo ingurukoa izatea.

Interesatuak bidali curriculuma mailatzaren 18rako.

Elgoibarko Izarra - Ubitarte 4, behea, 20870 Elgoibar
Barren astekaria: barren@elgoibarko/izarra.com
Informazio gehiagorako: (943 744 112, Ainhoa)



Izardi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA
SER
104,0 FM

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelera,
gaztelertatik euskarara,
eta ingelestetik euskarara.

ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com



Jaixa nagusitu zan Santa Kurutzen

**PRIMERAN EMON EBEN AS-
TEBURUA SANTA KURUTZ
INGURURA BILDATAKUAK,
AUZOKO JAIXAK OSPATZE-
KO** antolatu zittuen ekitaldixetan parte hartuta eta zapatu zein domeka auzokidien artian pasauta. Zapatuan botatako eurixak ez eban lortu Gorosta, Mandiola zein beste auzuetatik juandakuen jairako gogua zapuztia eta, aurreikusitta eguarnari jarraituta, auzoko ermittan mezia entzun eta bertsolari zein trikitilarixak eskindutako saiu-


kin gozaten jardun eta gero, gaztiak jokuekin amaittu bezain laster lxiarako bidia hartu eban askok, bertan bazkaltzeko. Eguna erromerixarekin agurtu eban, baiña jaixak domeka goiz osuan segidu eban, oinguan gaiñera eguzkixak lagunduta. Urteroko martxiari jarraituta, meza osteko soka-dantziarendako tarterik ezin zan faltan izan eta maguaren saiuan giro ederra nagusitu ostian, kanpaiak iraulgita agurtu zittuen jaixak hurrengo urtera arte.



Eta Eibarrek plazara urten eban

BARIXAKU ARRATSALDIAN HASI ETA ASTEBURU OSUAN GERATU BARIK JARDUN EBEN ATZERA ETA AUERRERA Arrate Eskubaloi Taldiaren aldeko "Eibar Plazara" jaialdiko antolatzailliak eta baita antolatutako ekitaldixetan parte hartzera animau ziran beste guztiak be. Adin tarte zabala ordezkatu eban hasierako kalejiran kirolarixak, dantzarixak, erraldoiak, jubilauren abesbatza eta beste hainbat alkartu ziran, Urkizutik Untzagaraiñoko ibilbidian topatzen zittuen guztiak jai-girora erakarritta. Astelena frontoian eta Untzagan eskindutako kontzertuak be jende mordia batu eban eta, eguraldixak larregi lagundu ez eban arren, herri-bazkarixa eta antolatutako beste guztiak problema barik, erregular ospatu zittuen.

auzorik auzo



Epaitegi zaharra atzera be erabilli nahixan

Bittor Sarasketa kalia oin dala urte batzuk epaitegixak hartu zittuan eraikiña txukuntzen dihardue azken astiotan, epaitegixak Txaltxa Zelaira eruan eta bertako instalaziñuak harrezkeru itxitta eta erabilli barik dagoz-eta. Urte honetan eraikiñarendako hamaika erabillera posibleren gaiñian berbetan jardun daben arren, agintarixak oiñ arte ez dabe argi azaldu zertarako erabilliko ziran instalaziñuak, baiña oiñ hurrengo jakin danez Eusko Jaurlaritzak Eibarko Udalari hiru zerbitzu hamen edifiziuaren bateratzeko eskaeria egin detsa. Holan, oin momentuan hiru toki diferentetan eskintzen dittuen zerbitzuak toki bakarrian eskintzeko modua izango leukie, erabiltzaillien mesederako. Bittor Sarasketan zentralizatzeko asmua daken zerbitzuak honektxek dira: gaur egunian Hezkuntza Esparruan dagan Haurreskolak-en egoitza; Ipuru auzuan, antziña merkatu plazia egon zan edifiziuaren dagan beterinarixa-laboratorixua; eta, hirugarrenik, Isasi kaliaren goiko partian, La Salle ikastetxetik gertu dagan Hezkuntza arloko inspektziñua.


eibar kaleka

Urtzaile kalia

Gaur egunian euskerazko izenarekin ezagutzen dogun kalia "Fundidores" deittu zan aurretik eta oindiok be askok holan esaten detse. Gure herrixan sasoi batian inportantiak izandako ofiziuetak bat goguan, izenak kaliaren hasieran dagan Aurrera edifiziuak 1940ko hamarkadan hartu eban fundiziñuari egitten detsa erreferentzixa.

Pegora kopurua: 6

Erroldatutakoak: 102



asteko

425.932

datua

euroko defizitarekin itxi eban 2010eko ekitaldiko balantzia Imesa udal inbiliarixak, oin dala egun batzuk egindako urteko batzarrian. Urteko memorixak jasotakuaren arabera, protekziñoko 82 etxien promozioñuan 10.760.000 euro gastau zittuen.

Autoenplegu taillerak Ekintzaille Egunerako

MAIATZAREN 26-XAN EKINTZAILLIAREN EGUNA OSPATU-KO DABE DEBEGESAN ETA, HORREN HARIRA, arratsaldia beteko daben hainbat jarduerak osatutako programia preparau dabe: 18.00etan hasitta, Juan Luis Urkola (Urkola Formación y Consultoría) gonbidatu dabe hitzaldixa eskintzeko eta, horren ostian eta iaz egindakuaren bidetik, 2011ko Debabarrena Ekinean! Eta Bai Industriari! errekonozimenduak banatuko dittue. Debabarrena Ekinean! Programaren barruan sortutako Txioka enpresakuak preparautako piskolabisarekin agurtuko dabe jardunaldixa. Parte hartu nahi dabenak aurretik izena emon biharko dau ekintzailea@debegesa.com helbidera mezua idatzitta.

Bestalde, Ekintzaille Egurenaren inguruan autoenplegu tallarrak eskinduko dittue Debabarrenako 8 herrixetan, astelehenian bertan hasi eta hillaren 19ra bittartian. Ikastaruak herri bakotzeko Kzgunian emongo dittue (Mutrikun Birgaitze buleguan). Eibarren astelehenian, hillaren 16xan izango da ikastarua, 12.00xetatik 13.00etara. Honetan parte hartzeko be lehenago emondako helbidera idatzi leike edo Debegesako 943820110 telefonora deittu (Vanesa).



DOMEKAN HIL ZAN ASUN ANGUERA ILLARRAMENDI ETA ASTELEHENIAN EGIN ZAN HARI AZKEN AGURRA EMOTEKO EKITALDI ZIBILLA, Txaltxa Zelaixan. Bertan herritar mordua alkartu zan, Anguera gurian oso ezaguna zalako. Bestiak beste, azken urtiotan gurian ospatu diran Eibar Kantuan jaialdixetan "Voces y Cuerdas" taldiaren ahotsa izan zan Anguera eta beraren gaiñeko hainbat kontu Ego Ibarra batzordiarene artxibuan jasota geratu dira, tartian Eibartarren Ahotan proiektuaren harira egindako grabaziñuak. Bertan daguazten testimonixueri jarraituta, Anguera gaur egunian desagertuta dagan baiña Gerra Zibillaren aurreko urtietan oso

Asun Anguera hil da



Asun Anguera Eibar Kantuan jaialdixetako batian kantuan.. / LEIRE ITURBE

ezaguna izan zan Arraindegi kalian (Arraindikalen) jaixua, antziñako Eibarri buruzko kontu mordua ederto ezagutzen zittuan, batzuk zuzenian bizi izan zittualako eta beste batzuk, barriz, etxian jaso eta goguan zittualako. Horrekin batera, aittak

moduan musikarekiko zaletasun haundixa izan eban eta, gure herriko abesti ezagunak abestiaz ez eze, Eibarko kantua jasotzen dittuan Udalak kaleratutako liburuxka osatzeko orduan "laguntzaille ezinbestekua" izan zan.



ELAren 100 urtiak ospatzen

ELA SINDIKATUAREN SO-RRERAREN 100. URTEURRENAREN HARIRA, ASTELEHEN ETA MARTITZENIAN EIBARKO EGOITZAN ikusgai egon zan sindikatuaren historixari errepasua emoten detsan erakusketa ibiltarixa. Horren aitzakixarekin, gaiñera, martitzenian bat egiñ eben ELAko kide, kide-ohi eta lagunak erakusketatik ikusi eta piskolabisa egitteko. Gaur egunian Deba eskualdian 6.000 afiliatu eta 400 ordezkari inguru dittuan sindikatua 1911ko ekaiñaren 11n hasi zan lehelengo pausuak emoten, Solidaridad de Obreros Vascos izenarekin. Hurrengo urterako 1.000 afiliatu zittuan

eta 1918xan Gipuzkoako eta Bizkaiko federaziñuak eratu zittuen. 1929ko urrixan STVk lehelengo kongresua egiñ eban Eibarren, sozialistak nagusi ziran herrixan. Ordurako Bizkaian 6.200 afiliatu zittuan eta Gipuzkoan 1.500. Gerra sasoko oztopuak gaindittuta, gerria amaittuta lehenagotik hasittako bidari segidu zetsan eta ELAK egindako lehelengo kongresurako Eibar aukeratu eben. Sindikatuaren sorreraren 100 urteurrena, ospatzeko, bestiak beste, horretxek guztiak gogora ekarri nahi izan dabe herririk herri ikusgai eruaten diharduen erakusketan bildutako erretratu zein bestelako materixalarekin.

Lanerako gertu!

MGEP

MODURKOR GOI MAILAKO POLITIKARI

www.mondragon.edu/mgep

⇒ **Oñati gestio
heziketa**

www.mondragon.edu/en/presagintza

GO-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK 2011-2012

Informazio jardunaldiak

MGEP		OÑATI Gestio Heziketa	
maiatzak 14 (larunbata)	<ul style="list-style-type: none">• Sistema Elektrotroikikoak eta Automatizatuak• Erregulazio eta Kontrol Sistemak Automatizatuak• Sareko Informatika Sistemak Administrazioa• Egituzko Mekanikako Sistemak• Egituzko Mekanikako Produktibitatearen Programazioa• Indusri Ekipamenduak Mantentzeak	maiatzak 17 (asteartea)	<ul style="list-style-type: none">• Administrazioa eta Finantza• Idazkaritza• Merkataritza, Euzketa eta Marketing-a
11:00		18:00	
5001			
Gela			
Kontsulta pertsonalak:			
943 71 21 91		943 71 80 69	
E-posta: zarrarain@jeps.mondragon.edu		E-posta: enpresagintza@enpresagintza.mondragon.edu	



IREKI

BIDEA

EZKERRARI

Bozkatu



aralar

BAKEARI
EUSKARARI
EUSKAL HERRIARI
POLITIKARI



San Isidroetako IX. Aizkolari Txapelketa izango da jokoan aurten. / MAIALEN BELAUSTEGI

San Isidro eguna ospatuko da domekan

Domekan, maiatzaren 15an baserriarren patri eta babeslea den Isidro Deunaren omenezko jai hartuko du Arratek, Deba Beheko Landa Garapen Elkarteak antolatuta eta Debemen, Kantabria jatetxea eta Debarreneko Udalek lagunduta. Ohiko martxari jarraituz, 11.30-etan hasiko den mezarekin ekingo diote egunerako prestatu duten egitarauari. Mezan bertsolari eta trikitilariak ere hartuko dute parte eta, amaitu bezain laster, jarraian prozesioan irtengo dira Kofradiako kideak eta mezatara doazen guztiak, Usartza Txistulari Bandak lagunduta. Horrekin batera, Kezka dantza taldearen eskutik elizako atarian aurrekua eskainiko da. Elizako

ospakizunak amaituta, urtero legez bailarako produktuen dastaketari tartea eskainiko zaio. Besteak beste Getariko txakolina, bailarako gazta, ogia eta mendian hazitako basatxarri ezaugarria duten txarrikiak jateko aukera izango du nahi duen guztiak. Eguerdire partean, 12.30ak aldera herrikiroren txanda ailegatuko da: San Isidroetako IX. Aizkolari Txapelketa jokatzeko hasiko dira eta, tartean, harrijasotzaileen saioa ere egingo da, zelaietan. Eta 14.30etan bailarako baserriarrak batuko dituen bazkaria hasiko da, Kantabria jatetxean. Bazkalostea girtzen bertsolariak eta trikitilariak jardungo dute eta, egitarauari agur esateko, 17.30etan idi-probak hasiko dira.



Adin guztietako jendea biltzen da urtero Arraten San Isidroetan.

Gaur abiatuko dira 28. Dia das Letras Galegas

Aurreko barixakuan aurkeztu zituzten prentsaurrekoan hurrengo asteburuan Urkizu aldean ospatuko diren 28. Dia das Letras Galegas, As Burgas Galiziako Etxeak urtero antolatu ohi dituen jaiak. Miguel de los Toyos alkatearekin batera eskainitako aurkezpenean, gainera, asteburuko gain irailerako prestatzen diharduten ekitaldi bereziaren ingurukoak ere aurreratu zituzten. Izan ere, irailaren 22, 23, 24 eta 25 bitartean Eibarrek EAEko Galiziako Etxeen urteroko bilkura hartuko du, XXVI. Galiziako Eguna Euskadin delakoaren harira. Egitaraua oraindik osatzeke badago ere, honezkero hainbat ekitaldiren gaineko informazioa aurreratu zuten guztia-ko koordinazioarekin arduratzen diren Eibarko Galiziako Etxekoek.



Asteburu honetarako zer prestatu duten agendan irakurri dezakezue, 28. orrialdean. Hala ere, egitarauari gaur arratsaldean, 19.00etan ekingo diote, Galiziako Jai Batzordearen taberna ofizialki irekitzearekin batera. Os Galaicos gaita taldearen kalejira eta herri kirolak ere orduan hasiko dira Ernesto Ezpeleta "Bihurri", Hodei



Jai egitarauaren aurkezpenaren irudia. / ANDER SALEGI

Ezpeleta, Jesus Gisasola "Zelai II" eta Ioritz Gisasola "Zelai III" aizkolariak jardungo dute, aita-semeen arteko norgehiagokan. Eta gauean, 22.00etatik aurrera Verano Azul orkestrarekin dantzan jarduteko aukera paregabea izango da, goizaldera arte. Ohikoari jarraituta, Urkizuko parkean batuko dira ekitaldiak Jaiak bihar eta etzi izango du jarraipena, Galiziako zein Euskal Herriko dantza, musika eta gastronomiari eskainitako jarduerekin.

Barrakak heldu dira dagoeneko Urkizura eta, ohikoa denez, olagarroa, enpanadak eta ribeiroa ere ez dira faltako bertako karpetan. / MAIALEN BELAUSTEGI



Aurreko astian harro-harro esan zeskun Bakiaren Nobel Sarixak Estatu Batuak izugarritzko mesedia egin zetsala munduari Osama Bin Laden hil eta gero. Hortik aurrerakua, iturri ofizialetik emondako informaziñuarekin, tartian guzurak onartuta, jendiaren artian zalantzak besterik ez dittue sortu. Zenbateraiño siñistu halakorik?

Zer begittantzen jatzu Osamarekin gertautakua?



FOUARD EL MOUSSAOUI
32 urte
dendarixa

Hill egin dabela guzurra da. Izan leike nun dagan jakittia edo baita harrapatu izatia, baiña ez dot uste hil egin dabenik. Gehixago balixo dau bizirik hilda baiño, informaziñua etartzia nahiko de-tse-eta.



FELIX LÁZARO
59 urte
pentsionistia

Batek daki esaten deskuenta egi-xa ala guzurra dan. Horrenbeste guzur kontatzen deskuez... Ez dabe ez gorpurik ez ezer erakutsi eta, gaiñera, gorpua desagerrazi egin dabela diñoskue... Nik behintzat ikusi arte ez dot ezer siñisten.

ANGELA MARTÍN
51 urte
bihargiña

Egixa izango dala pentsatzen dot. Baiña ez jata ondo begittantzen gorpua desagerraztia, famelixari emon barik itsasora botatzia. Semiak neurrixak hartuko dittuela entzun dot. Dana oso nahaxia da.



MARIA HERNÁEZ
73 urte
jubilaua

Ikusi arte ez dot siñisten; nik behintzat ez dot ikusi. Gorputza itsasora bota dabela esan zeben, baiña iñork be ez dau ikusi. Arraro samarra begittantzen jata dana. Batek daki zein interes egon leiken hor atzian...



DANOBATGROUP



GOIMEK

Doitasun handiko mekanizazioan puntakoa den kooperatibak honakoa behar du:

PLANEADORE EDO ARTEZKETA LAUETARAKO LANGILEA

ESPERIENTZIADUNA
(Erref: RP_11)

LANPOSTU PROFILA: Artezketa Lauetarako makina handiak eta doitasun handiko bukatze lanak menperatu eta esperientziaduna. Piezak neurtzeko egiatatzte tresnak erabiltzen jakitea.

ESKATZEN DA: Goi mailako heziketa zikloa, artzeko postu baten esperientzia izatea, euskera, ekimena eta taldean lan egiteko gaitasuna.

ESKEINTZEN DA: Lanpostu finkoan berehala hastea eta esperientziaren araberako ordainsaria.

Interesa duzuenek, bidali CVa Debado 5. Posta Kutzabilara edo goimek@goimek.es postara 2011ko Maiatzak 27a baino lehenago, (REF: RP_11) adieraziz.

TEEN-
AJEA

Jubenil mailako Euskal Herriko eskubaloilari onenaren saria jaso du, baina naturaltasun osoz hartu du errekonozimendua Arrate taldeko jokalaririk. Ohituta dago honezkero, orain dela urte bi sari bera jaso baitzuen kadeteetan: orduan ez zen Eibarko taldean. Basaurikoa da eta pozik dago Eibarrera etortzeaz, "modu profesionalagoan dihardugulako".

SERGIO FERNANDEZ, eskubaloilaria:

"Eskubaloian partiduak defentsan irabazten dira"

- Zergatik izendatu zaituzte jokalaririk onena? Ezustea izan da?

Erregularitasuna aipatuko nuke: ez dut dohai berezirik ezta zulo handirik ere. Aurretik ere, infantil mailan hasita, jaso ditut hainbat sari. Zortea dut.

- Zein postutan jokatzen duzu? Goleatzailea zara?

Ezkerreko lateralean jarduten dut eta golak sartzea beste hiru-lau taldekideekin banatzen dut.

- Baduzu zure postuan gustoko jokalaririk?

Mikkel Hansen daniarra: jaurtiketa ikaragarria du, indar handia eta, batez ere, gaztea da.

- Aipatutako dohai horiek badiuzu zuk? Zeozer falta?

Indar handiagoa behar dut, profesionalelara jauzi egiteko behintzat. Aurten ia denboraldi osoa eman dut Arrateren bigarren taldean, 1. Nazional mailakoan eta asko ikasi dut.

- Jubenilekin ere jokatuko zenuen partidu bat edo beste...

Bai, batez ere sektore fasean izan naiz taldean eta nagusiekin ikasitakoa ondo etorri zait.

- Euskadiko selekzioarekin ere jokatuko duzu. Zer moduzko esperientzia izan da?

Beste maila batzuetan ere jokatuta izan dut selekzioarekin. Jubenilekin azkena Leonen izan da, selekzio autonomikoaren arteko Espainiako txapelketan.

- Zer eskaintzen du eskubaloilariak? Zergatik izan daiteke erakargarri?

Dinamikoa da, ez zara geldirik egoten eta gol asko sartzen dira. Kontaktuzko kirola da eta behar-beharrezkoa du intentsitatearekin jokatzea, %100 ematea.

- Erasoan eta defentsan jokatzen duzu? Edo golak sartze-ko gordetzen zaituzte?

Batean zein bestean jarduten dut; akaso, erasoan gehiago.

- Zer da beharrezkoagoa: golak sartzea ala saihestea?


Partidu gehienak defentsan irabazten dira: hori betidanik!

- Asobalekoekin jardun izan duzu entrenamenduetan-edo?

Noizbehinka eurekin entrenatu dut, bai. Kurilenko dut gogoko, taldea bizkar gainean hartu du-eta.

- Nola bizi duzu taldearen egoera larria?

Egoera ekonomikoa ez da onena, baina harrobia asko lantzen da, horrek daukan merituarerkin. Ea aurrera egiten dugun!



ELI GANTXEGI LASUEN
I. URTEURRENA (2010-V-17)

**"Goazen Arratera
Amari laguntzera,
goazen bihotz guztitik
agur laztan bat ematera"**



ZURE FAMILIA GUZTIAREN PARTEZ



Aldatzeko ikasleak ikas bidaietan gozaten

Kurtsoaren azken txanpari gogor heltzeko beharko duten indarra batzeko asmoarekin, Aldatze ikastetxeko ikasleak bidaietan izan dira 2011ko lehenengo hiruhilabetekoa amaitzen zutela aprobetxatuta. Ikas bidairako aukeratutako tokia taldearen arabera ezberdina izan da: 4. DBHkoek Segovia, Madril eta Burgos ezagutzeko aprobetxatu dute bidaia; 1. batxilergokoak, berriz, Asturias aldera joan dira, hango inguruak abentura-kirolak praktikatzeko eskaintzen dituen aukerekin animatuta; eta 2. batxilergokoak, berriz, Erromaraino ailegatu dira eta Italiako hiriburua goitik behera ezagutzeko moduan ibili direla azaldu digute irakasleek.

Batxilergo
1. mailakoak
Asturiasen izan
ziren abentura-
kirolak
praktikatzeraz.



4. DBHko ikasleak Segovia, Madril eta Burgos ezagutzeko aukera izan dute.



Erromaraino joan ziren 2. Batxilergokoak Italiako hiriburua goitik behera ezagutzera.



Gaztetxe Egunaren ingurukoak zuzentzen

Aurreko aldizkarian, Gaztetxe Egunaren inguruko berriarekin hankasartzea izan genuen eta ekitaldi horri zegokion argazkia sartu beharrean Indianokua gazteleku berrian ateratako irudiarekin lagundu genuen berria. Horrek irakurleei sortutako nahasmenarengatik barkamena eskatu nahi dizuegu eta bide batez aurreko astean kaleratu beharreko argazkia hemen daukazue: Debako Elektro Txaranga bere kalejiran martxa betean.

Ikasturteari agur La Salle Azitainen


Bihar agurtuko dute 2010-2011 ikasturtea La Salle Azitainen 2. Batxilergoa ikasten diharduten neska-mutilek eta, urteroko ohiturari jarraituta, Azitaingo elizan bertan ospatuko duten eukaristiarekin hasiko dituzte agur-ekitaldirako antolatutakoak. Jarraian ekintza akademikoaren txanda ailegatu da eta, hori amaituta, ikastetxean denek elkarrekin hamaiketako hartuta esango diote agur kurtsoari argazkian ikusten dituzuen gazteek.




JOSE ANTONIO PEÑA ESTRELLA

(I. urteurrena 2010-V-17)

*Bere aldeko MEZA egingo da zapatuan,
hilaren 14an, arratsaldeko 19.00etan,
San Andres elizan.*





Belen Fernández-en KOLABORAZIOA

"Aita, ama, aktore izan nahi dut"


Lerro hauek irakurtzen ari zaretenon artean batek baino gehiagok entzungo zien bere seme-alabei esaldi hori, eta entzun ez duzuenok, jakizue entzun dezakezuela.

Ez zaitezte beldurtu. Aktore izatea ez da droga, alkohola, sexua eta neurrigabekeriaren sinonimoa. Aktore izatea beste edozein lanbideren parekoa da, are gehiago, gogorragoa eta latzagoa izan daiteke, oso pertsonalitate prestatua eskatzen du, eta aldaketa azkarrak eta zure lanaren sormen, garapen eta agerpenen dauden pertsonen kritikak onartzeko barne-indarra izan behar da. Aktore izan nahi duzuen neska-mutilak, kontu izan! Oso gutxi lortzen dute aldizkarietan eta telebistan ikusten dituzuen aktoreen ospea, arrakasta eta dirua. Aktore izatea antzerkian jarduteko gogoia izatea da, beste edozeren gainetik. Testu dramatiko bat gogoz ikastea eta pertsonaien inguruan gogor lan egitea, eszenografia bat pentsatzea, argiak, soinua, funtzioaren banaketan pentsatzea... eta ANTZERKIA esaten dut, baina nahiz eta aktorea izan, telebistan, zinean eta bikoizketan lan egiten jakin behar duzu, baina ANTZERKIA esaten dut, aktore baten karreraren oinarrizkoa eta ezinbestekoa delako. Eszenatokia erraztasunez eta egiten jakinez zapaltzea. Gurasoak, lasai! Aktore gehienek bizi diren inguruko antzerki-taldeetan hasten dute euren ibilbidea. Arte Dramatikoa ikasteko eskolak ere badira. Hala ere, garrantzitsua da gazteek euren gurasoengandik jakitea lanbide honetara dedikatzeak zein atsekabe eta borroka dakartzan, baita beste eremu profesional batzuetan trebatzeko beharra ere, arrakasta eta ospea desagertu edo ailegatu ez, eta jaten jarraitu behar denerako. Hala eta guztiz ere, aktore izatea munduko lanik atsegina delakoan nago.

ZINEA

Donostiako Zinemaldiak sail berriak izango ditu

ZINEMA GOZAMENAREKIN ETA DIBERTSIOAREKIN LO-TZEKO HELBURUZ JAIO DIRA "Gauerdiko saioak" eta "Zinema eta gastronomia" atal berriak. Horrez gainera, 59. edizioak izango du bestelako berritasunik, Jose Luis Rebordinos estreinatuko da eta, zuzendari moduan. Bestalde, aurtengo edizioaren kartela aurkeztu dute orain dela egun gutxi. Maleta bat protagonista izango duen kartela, Yoana Figuerasek egin du Bi Tanta enpresaren eskutik.



Hiru euskal film labur Shenzengo zinema jaialdian

"JUGANDO CON LA MUERTE", "TODO ES MAYBE" ETA "EL TREN DE LAS MOSCAS" AUKERATU DITUZTE Txinako ikus-entzunezko ekitaldi entzutetsu horretan parte hartzeko. 2.313 film laburren artean aukeratu dituzte lan horiek eta aurretik ere sariak jasotakoak dira hirurak. Egunotan Txinara abiatu dira zuzendariak eta Banatu Filmak banatzaileko ordezkariak jaialdian parte hartzeko.

ANTZERKIA

Arantxa Iturbek eta Agurtzane Intxaurregak Max saria jaso dute

EUSKARAZKO ANTZERKI-AUTORE ONENAREN SARIA JASO DUTE "AITAREKIN BIDAIA" LANARENGATIK, joan den astelehenean Kordobako Gran Teatro antzokian egindako ekitaldian. Gaitzerdi talde bizkaitarra eta Atikus talde nafarra, berriz, ikuskizun berri onenaren saririk gabe gelditu dira. Azkenean, "Rayuelaren Dogvill"-ek eraman du sari hori.




Donostiako XX. Poltsiko Antzerki Jaialdia maiatzean

MAIATZAREN 5EAN HASITA ETA 22RA ARTE HAINBAT EKITALDI IZANGO DIRA DONOSTIAKO 21 TABERNA ETA AISIA-GUNETAN, guztira 8 ikuskizun



eta 22 funtzio. Magia, musika, umorea eta antzerkia izango dira Jaialdiaren osagaiak. Aurtan, bi ikuskizun izango dira euskara hutsean: Ramon Agirre eta Inazio Tolosaren "Xentimorik gabe" eta Oihulari Klown-en "Ezineman". Ikuskizunetara joateko sarrera doakoa da.



Garatuz

*"Eibarrek behar duen
koherentzia"*



Eva Juez Garmendia
Elbarko Alkategaia

*Eibarrek askoz
gehiago merezi du*



EVA →

eibargaratuz.com
info@eibargaratuz.com



Garatuz

Juratuz



Maiatzaren 25ean euskeraren transmisioa aztertzeko mintegia egingo da Eibarren, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik eta Udalaren laguntzarekin. Goiz eta arratsalde emango den mintegia Portalea kultur etxean izango da eta izena emateko aukera hilaren 20ra arte dago (943-200918 eta normalizazio@etakitto.com). Prezioa 20 eurokoa da, bazkaria barne (bestela, 10 euro). Paula Kasares hizkuntzalari, irakasle eta euskaltzain urgazleak arratsaldeko saioan hartuko du parte "Euskararen belaunez-belauneko jarraipena. Hizkuntza plangintzarako hausnarketa" izenburuko gaia jorratuz.

PAULA KASARES (hizkuntzalari):



“Transmisioa ez da bakarrik goitik behera egiten: hori baino askoz horizontalagoa da”

- Hitzaldiaren izenburua zeren arabera aukeratu duzu? Non-dik enfokatzeko asmoarekin?

Formulazioak egiterakoan garrantzitsua da plangintza ondo ulertzea eta argi ikustea transmisioa belaunez-belaun zelan ematen den. Denboran emateaz aparte, gizarte mailan gertatzen denez, gertakari soziala da, familiararen arloa gaintzen duena, nahiz-eta bakoitzak egindako hautuak prozesu guzti hori bermatzen duen. Hizkuntzan eragiten dituzten faktoreak dira bai hizkuntzaren statusa, bai arlo sozio-ekonomikoa... horrelako faktoreek asko baldintzatzen dute hizkuntza gutxituen errealita-

tea eta, gurea moduko errealitateetan, familiak egin dezakeen funtzioaren alde ez du jokatzen behar den statusa ez onartzek. Batzuetan, dena dela, elementu batzuk itsutu egiten gaituzte eta ez ditugu kontuan hartzen transmisio modu ez kontzienteak: gehienetan transmisioa goitik beherakoa moduan onartzen dugu, prozesu bertikalean eta bakarrik helduek haurrengan eragingo balukete moduan. Bada, praktikan erakusten digu hori gaintzen dela eta egin diren ikerketetan nabaritzen da bada beste ikusmolde bat: norabide bikoia, elkar eragitekoaren aldekoa. Akaso ukatu behar dugu haurrek ere sartu dutela euskara etxe batzuetan? Harreman hori egon badago eta duen garrantzia eman behar zaio. Beste puntu bat: kontuan hartzen ditugu berdin arteko harremanak? Adinkideen eragina... hori bai dela erreala, horizontala baina garrantzi handikoa. Arlo guzti horiek zaintzeak plangintza eraginkorragoak ekarriko lituzke.

- Zerk bultzatu zintuen Dokto-radutza hizkuntzari buruzko familia transmisioaren inguruan egitera?

Hizkuntza bizitzarako arlo funtsezkoenen artean dudalako. Hala ere, transmisio hitza baino

gogokoago dut sozializazioa erabili. Guzti horretan, gainera, orain arte emaitza makrokuantitatiboak erabili izan ohi dira, batez ere portzentajeetan zentratutakoak; eta ni, aldiz, azterketa mikrokuantitatiboaren aldekoa naiz, azken hauetan inguruneak kasu askotan aurreikusitakoa zelan iraultzen den ikusteko aukera ematen digulako: familia barnekoak bermatuta batzuetan, komunitateak besteetan...

- Aipatu duzun sozializazio arlo hori estrategikoa da etorkizunean hizkuntzaren -euskeraren, kasu honetan- erabilerrari eusteko?

Transmisioa modu zabalean hartuta, bai. Hizkuntza batek bere biziraupena bermatzeko, belaunaldi bakoitzak izan edo sortzen ditu euskarriak, batez ere inguruko hizkuntza handienek sortzen dituzten presioei aurre egiteko. Sozialki dena lortzea zaila da; horregatik, jendeari birpentsarazi nahi diot gehiegi azpimarratzen diren gauza batzuren inguruan, gaitasunaren kasuan esaterako. Gaitasunean begiak ipini beharrean, erabilera ipini beharko genituzke: erabilera da transmititzen dena, erabiltzen dena ikasten da. Guraso erdaldunek ezkutuan egiten duten lana, esaterako; ezin dute transmi-

titu, akaso? Kontzientzia kritikoa badute, zergatik ez?

- Horrelako mintegiak beharrezkoak ikusten dituzu? Ala beste zeozer eragingarriaren alde zaude?

Horrelako mintegiak oso ondo datozkie plangintza arloan dihardutenei, horrelako foroetan hainbat gai estrategikoa aztertzen dira-eta. Aukera izaten da ere zenbait ikerketen berri emateko. Esperientzia soziolinguistikoa partekatzen dira eta gogoetak egin daitezke guztion artean. Hausnarketa horietatik ondorioztatutakoak lagundu behar digute eraginkorrako izaten.

- Zuk gertuagotik bizi duzun Nafarroako egoera besteona baino zailagotzat duzu arlo horretan?

Elementu berezi batzuk badi-tugu, hori ezin uka; batez ere, status-aren eta prestigioaren esparruetan, beti ere kalterako. Elementu administratiboetan aldeak izan arren, soziolinguistikoki aztertua ez dago halakorik. EAEko toki erdalduenak ez dugu esango Nafarroako gune euskaldunak baino hobeto daudenik. Hor ere nondik aztertzen den: egoera makroari begira badago aldea, baina niretako gehiago begiratu behar zaio arlo sozio-linguistikoiari.



Hautagaiei galdezka

Hurrengo astebururako, maiatzaren 22rako daude deituta Udal eta Batzar Nagusietarako hauteskundeak gurean. Ordezkaritza politikoen hainbat erakundetan jardun ohi dute beharrenean eta, sarritan, horietako askotan egiten dituztenak nahiko arrotzak gertatzen zaizkie herritar askori. Baina oraingoan herritarrengandik gertuen dagoen erakundearen zeintzuk egongo diren aukeratzea egokitzen zaigu, hau da, datozen lau urteotan gure udaleko alkatea eta zinegotziak zeintzuk izango diren botoa ematera joango diren eibartarren bozkek erabakiko dute. Zazpi alderdik dihardute udaletxeko jarlekuak betetzeko lehian eta bakoitzeko zerrendaburuak guk egindako hiru galderei emandako erantzunak batu ditugu.

- 1.- Zer izan da legegintzaldi honek emandako onena eta txarrena?
- 2.- Zeintzuk dira zuen programako puntu nagusiak?
- 3.- Eibarren euskararen egoera hobetzeko zein asmo daukazu?

PSE-EE

1.- Gure balorazioa oso positiboa da. Jarduera biziko lau urte izan dira eta aurreko programan jasotako-etatik gehienak bete egin dira. Gehiengo absolutua izan arren, gobernurako hitzarmenak izan ditugu PNV eta EA (gero Hamaikabat) alderdiekin eta PP-rekin, berriz, egonkortasunerako akordioa. Gobernuaren jardunak udaleko taldeen %90aren babesa izan du. Positibotzat jo behar ditugu Babes Ofizialeko Etxeak, Polo Teknologikoaren beharren hasiera, trenbide gaineko pasealekua Ardantzán, El Corte Inglés zabaltzea, Eroski haunditzea, kirol instalazioak hobetzea eta Orbeako kiroldegia inaguratzeari... Alde negatiboan Errebalen merkataritza gunea berriarrekin hasterik ez dugula izan aipatuko nuke; hala ere, hurrengo legegintzaldian errealitate bihurtu dadin oinarriak finkatuta daude. Krisiak eta langabeziak familiei nola eragin dien gogoan hartzeko modukoak dira. Maila pertsonalean, ezin ahaztu Miguel López de Guereñu lagun, lankide eta zinegotziaren heriotza.

2.- Gure proposamen guztiak eibartarren premiei begira egindakoak. Enplegu eta formakuntzari dagokionez, krisi sasoiari gauden honetan eta nahiz eta udalaren eskumena ez izan, ehundura ekonomikoarekin elkarlanean jardun behar dugu, enplegurako aukerak gehitu daitezten. Eibarko Polo Teknologikoa, Errebal merkataritza gunea, gure herrian ospitala egitea eta denda txikiak zein industria txikiarekin elkarlana, horiek guztiak gure inguruan aberastasuna eta enplegua sortuko dute. Energia berriztagarrien inguruko injeniaritza eta gai beraren inguruko lanbide heziketa posiblea gure gazteek lana errazago lor dezaten lagungarriak izango dira. Eibarren ospitala egiteko proiektua estrategikotzat daukagu. Bestalde, Iparragirre, Mogel eta Mekolan aldapa mekanikoekin eta Urki-Polonia Etxeberriari igogailuarekin, irisgarritasuna hobetzeko ekimenak daukagu. Plaza publikoaren urbanizatzea eta herri barruko altzariak berritzea konstanteak izango dira. Iparragirren, Ubitxa, Legarre-Gain, Jardifñeta, Egazelai eta Bolinguan babestutako 300 etxebizitzatik gora aurreikusten ditugu; tartean alokairurako zein dotazio-apartamentuetarako pakete garrantzitsua dago. Trenbide gainean paseatzeko guneak egiten segiduko dugu. Kirol instalazioetan inbertitzean beti asmatu dugu eta, horregatik, lpuera kiroldegia moja-komenturantz zabaldu nahi dugu. Eta, kanpoko igerilekuetako uraren temperatura 2-3 gradutan igotzeko aukera emango digun energia berriztagarrietan oinarritutako sistema ipini nahi dugu martxan.

3.- Hiru ardatz nagusi izaten jarraituko du Udalaren ekimenak: euskalduntze-alfabetatzea, erabilera bultzatzea eta euskalkia sustatzea. Hirurak inportanteak izanik, erabilera ahalegin berezia egin behar dela uste dugu, eta familia eta gazte giroan, bereziki. Horretarako, orain arte moduan, herritarrekin lan egingo dugu, euren proposamenak eta iritzia kontuan hartuz.



APARTA, BERRIA, PRAKTIKOA eta GAURKOA



EMAN CONSULTING, S.L.

- AHOLKULARITZA ETA CONSULTING
 - Laborala
 - Fiskala
 - Kontablea
 - Juridikoa
- GIZA ERREKURTSOAK
 - Enpresako komenio eta hitzarmenak
- PERTSONALAREN AUKERAKETA
- STAFF OROKORRA
- KRISIALDIAN DAUDEN ENPRESAK BERRIRO MARTXAN JARRI
- AUDITORIAK
- KOMENIO ESTRAJUDIZIALAK
- ORDAIN-ETENALDIK
- ASEGURU PRIBATUAK
- KALITATE ARAUAK

J. Etxeberria, 5 (Tel. 943 200 336 / 943 200 069) - Faxa: 943 200 342 **EIBAR**
 Marqués de Valdespina, 10 (Tel. 943 170 054) - Faxa: 943 176 901 **ERMUA**
 emansl@infonegocio.com

MAILAK TRUST. S.L.



TRANSAKZIO
 INMOBILIARIOAK
 KOMUNITATEEN
 GESTIOA

- ETXE ETA LOKALEN SALEROSKETA
- ALOKAIURAK
- TRASPASOAK
- BALORAZIOAK
- PERITAJEAK
- SUBENTZIOAK
- KREDITU OFIZIALAK
- BANKU KREDITUAK

J. Etxeberria, 5 (EIBAR)

Tel. 943 200 336 / 943 208 778 Faxa: 943 200 342

Marqués de Valdespina, 10 (ERMUA)

Tel. 943 170 451 Faxa: 943 176 901

HAMAİKABAT

1.- Jasaten dihardugun krisi ekonomikoak, langabezia tasak eta kontsumo-mailan egon den jaitsierak oso modu ezkorrean eragin die herriko merkatariei. Udalbatzak ekimenez osatutako programa erabili du esku artean eta, horietako asko bete diren arren, izatera birsortzailea eta estrategiko hutsa duten proiektuek ez dute argirik ikusi. Jakin badakigu inbertsioak alde batera edo bestera bideratzea erabakitzeke orduan ez dugula jakin horretan eragiten, inbertsioek beste norabide bat har zezaten; hau da, tokian tokiko gaietan (eskilara mekanikoetan edo trenbide gaineko pasealekuetan) gutxiago inbertitzeko eta, aldiz, jarduera ekonomikoan, enplegua zuzenean sortzen eta politika sozialei eusteko ekimenetan inbertitzeko.

2.- Aurrekontu eta azpiegiturari dagokienez ager daitezkeen erronken arabera ekonomia, tokian tokiko garapenaren eta enpleguaren promoziorako zinegotzigoa sortzea proposatzen dugu. Horrekin batera, berrikuntza eta ekintzailetzari laguntzea beharrezkoa da. Horren harira, cluster multisektoriala martxan ipintzea proposatzen dugu, proiektu berriak bultzatu eta clusterraren baitan egongo diren enpresetara moldatu eta bertan eskaintzeko helburuarekin. Horiek garatu eta gauzatzeko gure proposak ere behar dira. Debegesak gidatzea eta Teknikerrek laguntza teknologikoa ematea litzateke egokiena. Lanbiderekin eta Lantegi Eskolarekin elkarlana bultzatu nahi dugu, babestutako ikastaroak eta enplegua herriko langabetuei eskainiaz. Ikastaroak enpresetan dauden premiak zein Lantegi Eskolara doazenen ezaugarriak kontuan hartuta prestatu beharko lirake. Eskaintza zabaltzeko beharra ikusten dugu, energia berriztagarrien arloko zein laguntzaile teknikoak, orga-mutilak, obra-makineria eta bestelako inguruko ikastaroekin. Eta udalak zuzenean enplegua (mendiak garbitzen...) sortzeko programak behar ditu. Bestalde, merkataritzak bizitzen diharduen egoerari buruzko diagnostikoa egin behar da, premietara egokitzeko eta Errebal eta ingurua horretara moldatuta. Eibarko betiko dendei lagundu behar zaie, PERCO eta Merkagune planetan jasotakoak aprobetxatuta eta bertako komertzioaren promoziorako kanpainekin elkarlanean jardunda.

3.- Garrantzitsuena euskera indarberritzeko herri mailan sortzen diren ekimenei lagundu eta horiek aurrera egiteko behar dituztenentzat bidea zabaltzea da, are gehiago Eibarren gai honen inguruko sentsibilitate berezia dagoela kontuan izaten badugu. Udalak ekimen horiek guztiak errealitate bihurtzeko bitarteko guztiak ipini behar ditu. Adibide bat ipintzearen: denda eta tabernetan "Lehenengo berbia euskeraz, eta kitto".



EAJ-PNV

1.- Gobernuan egon gara horrela Eibarren alde lan egiteko aukera handiagoa genuelako. Berdintasun Arloa, Gizarte Zerbitzuen atalak, Kontsumitzaileen bulegoa, Jaiak... ordura arte erdi hilda zeuden atalak indarberritzen ahalegindu gara. Proiektu estrategikoak aurrera ateratzen lagundu dugu, esaterako Errebalgo merkataritza gunearen kasuan. Alde txarren artean, 2007 an mahai gainean adostu genituen hainbat proiektu estrategiko, hainbat arrazoi medio, burutu gabe geratu direla aipatuko nuke. Aurrekontuen negoziazioan PSOeren aldetik proiektu hauek bideratzeko borondaterik ez genuen ikusten eta gure desadostasuna azaldu genuen. Sozialisten gehiengo absolutua nabaritu dugu eta EAJ-k erakundeetatik hiriaren alde egin dituen ekimenak ezkutuz ahalegindu dira, adibidez trenbide-sare eta estazioen birmoldaketaren edo Matsariako industrialde berriaren kasuetan.

2.- Ziurrenik alderdi guztiok antzerako lehenetsunak emango ditugu aditzera, baina esaten den hori aurrera ateratzen jakitean dago koska, hiriak dituen gabeziei aurre egiten jakinda eta ditugun puntu indartsuak modu eraginkorrean kudeatuta. Gure proiektuak pertsonaiei ematen die garrantzia, inor bide bazterrean laga barik. Ezin gara udaletzeko bulegoetan sartu eta herritarrek eskatzen dutenari entzungor egin, jaramonik egin barik. "Hiri proiektu" osotua dugu: Eibar arlo sozio-ekonomikoetan bailarako burua izan behar da eta gure taldeak Plan Estrategiko eraginkorra proposatzen du; hau ez da ekintza solteekin bakarrik betetzen, ekintza horiek elkarri lotuta daude, eraginkortasuna areagotzeko. Urte hauetan "partxeoak" egin dira; guk proiektu orokor eta eraginkorra ipini nahi dugu martxan: gure ekimena www.eibargaratuz.com da. Oraingo datu sozio-ekonomikoak ezkorrak dira: azken 30 urteetan, biztanlegoaren %30, 12.000 lagunetik gora galdu dugu, "bizitza proiektu" bat eskaintzen ez duen hiria bihurtzen joan garelako. Eta biztanleen %20 5 urtetik gorakoa da. Eibar zahartzen doa eta gazteek alde egiten dute, hemen ezin dutelako etxebizitzarik erosi. Eta bertoko enpresa eta lantegiak itxi edo beste kokapen batzuetara alde egiten dihardute. Gure proposamenak elkarri lotuta dauden hiru zutabe ditu: ekonomikoa, soziala eta hirigintzakoa. Baina argi dago arlo ekonomikoan erronka asko daukagula gaintzitzeke eta horretarako Ekonomia Departamentua jarriko dugu abian.

3.- Euskeraz gehiago hitz egitea eta erabiltzea lortu behar da eta Udalak horretan zeresan handia du. Hartuko ditugun neurrien artean hauek aipatuko nituzke: euskarazko produktuen ekoizpena eragitea, euskarazko he-dabideak suspertuz, euskara "eibartarra" landu eta ezagutzera ematea eta euskararen erabilera gizarteratzea, udaletxean zein, bestela, eguneroko bizimoduan.



PSE-EE

- Miguel de los Toyos
- María Jose Telleria
- Arcadio Benitez
- Esther Kareaga
- Eneko Andueza
- Miren Gallastegi
- Jose Luis Vallés
- Ana Rodríguez
- Pedro Escribano
- Nerea Azpiazu

EAJ-PNV

- Eva Juez
- Iñaki Zuloaga
- M^a Luz Balenziaga
- Javier Zorrakin
- Carlos González
- Ione Telleria
- Miren Sojo
- M^a J. Agirregomezorka
- Pillipa Milikua
- Roberto Larreategi

Hamaikabat

- Mertxe Garate
- Iñaki Ugarteburu
- Gabi Gómez
- Jesus Rementeria
- Felix Errasti
- Lourdes Urzuriaga
- Jose Antonio Mutiloa
- Leire Ereño
- Antton Jaime
- Ricardo Sánchez

Ezker Batua

- Eli Gomez
- Luis M^a Santos
- Maria Isabel Postigo
- Jose Ignacio Irisarri
- Luis Etxeberria
- Eneka Delgado
- Idoia Alvarez
- Miguel Angel Santiago
- Juan Pedro Ortiz
- Itoitz Garcia

Aralar

- Sergio San José
- Mariasun Gartzia
- Miren Gentzane Milikua
- Felix Arriola
- Aratz Saban
- Aitor Baroja
- Serafin Basauri
- M^a Angeles Martiartu
- Nestor Alberdi
- Cristina Iraolagoitia

PP

- M^a Carmen Larrañaga
- Sofia Vázquez
- Angel Miranda
- Jesus Izquierdo
- Fernando Corral
- Jose Freire
- Julian Ortega
- Eugenio López
- Margarita Rico
- M^a Teresa Fernández

Bildu

- Igor Aldalur
- Josu Cristobal
- Soco Baskaran
- Leire Abanzabalegi
- Nerea Castro
- Begoña Vesga
- Enrique Etxekopar
- Jose Andres Urkia
- Yosune San Martin
- Maria Jose Arakistain



5 eguneko Teorikako IKASTARO TRINKOAK

GIDA-BAIMENAK

EIBAR

**San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45**


ZEZEN BIDE



**AUTO
ESKOLA**

ARALAR

1.- Legegintzaldiaren ezaugarri nagusia PSOeren gehiengo absolutua eta PNV eta EA-k (gero H1-k) lagunduta egindako gestio txarrekin batera. Txonta eta Errebal moduko proiektu estrategikoetan izandako porrot ikaragarria azpimarratzekoa da. Alde onak aipatzekotan, oposizio lanaren bitartez hainbat proiekturen irregulartasunak azaleratu ditugu eta, horrez gain, herritarren parte-hartzea bultzatu dugu. Alde txarrei begiratu gero, PSOerengan ohitura bihurtu den harrokeria behin eta berriz jasan behar izan dugu. Horrekin batera beste gauza txar asko egon dira: ez da bermatu etxebizitza duina izateko herritarren (eta batez ere gazteen) eskubidea eta, ondorioz, askok kanpora alde egin behar izan dute.



2.- Coliseo antzokia herriko kulturaren ardatz bihurtu nahi dugu eta Museoa 'El Casco' eraikineran eraman. Herritarren parte-hartzerako prozesuak bultzatu nahi ditugu. Degradatutako inguruak berreskuratzeko ahalgintzari jarraituz, Txontan berdegunea eta gaztetxea ipintzeko aukerak aztertu behar direla uste dugu. Bestalde, autobus geltokia Matsarian, tren geltokiaren aldamenean ipintzea proposatzen dugu, disuasio-aparkelekuarekin batera. Errebalerako erabilera anitzetarako eraikina nahi dugu, merkatu plazarekin eta herritarrei zabalik egongo den tokiarekin, parke berde handiarekin eta lurrazpiko garajeekin. Etxebizitzan, alokairu sozialari lehentasuna eman nahi diogu, hutsik dauden 1.600 etxebizitzak pizgarri fiskalen bidez kudeatuta. Etxebizitzarako eskubidea merkatuaren logikatik atera beharra dago. Legeak ematen dituen eskaintza, eskaintza-eskaera edo gonbidapen bitartezko lehiaketa guztietan udalak herriko enpresentzat gutxienez toki bat gordetzeko konpromisoa nahi dugu eta lehiaketa publikoetan herriko enpresen bonifikazioa ahalbidetzen duten merkatu-erretserbarako klausulak aztertzea. Guardia Zibilaren kuartelaren lurra herriari itzultzea eta horren inguruan herritarrek duten iritzia jasotzea eskatzen dugu. Astelena frontoi aldamenean udalak dauzkan lokalak jagondako etxebizitza modura erabiltzea proposatzen dugu eta, amaitzeko gazteen ahotsa udaleraino eraman behar dela uste dugu.

3.- Euskara ardatz hartuta, herritarrek (etorkinak barne) euskalduntze bidean jartzeko auzoko egitaraua beste agente batzuekin batera abian jarri behar dela pentsatzen dugu. Bestalde, udalean euskararen inguruan dagoen plana osotasunean, muturreraino betearazi behar dela eritzen diogu. Euskaldunok euskararen inguruan daukagun erronkarik handiena hizkuntzaren erabileran datza eta, beraz, bide horretatik doazen ekimen guztiak bultzatuko ditugu.



EZKER BATUA

1.- Egin den kudeaketa eskasa, batez ere hirigintza arloan eta langabeziari eskainitako arreta txikia azpimarratu nahi ditut. Azken honek familia askorentzat berebiziko garrantzia dauka eta, hala ere, udalak ez du egokieraren inguruko aginterik bere gain hartu ezta konponbidea bilatzeko hartutako erabakiekin asmatu. Errebalen eta Txontan izandako porrota azpimarratzekoa da; horietan zein beste batzuetan herritarren parte-hartzea bultzatzeko egindakoa hutsaren hurrengoia izan da eta gainontzeko alderdiei parte hartzeko emandako tarteak ere txikia izan da. Hala ere, oposiziotik kudeaketa eskas hori salatu eta etekina ateratzea lortu dugu, gureak diren proiektuekin emaitzak lortuta (aireporturako autobus zerbitzua, zergak epeka ordaintzeko aukera, beiratearekin itxitako Txaltxa Zelairako parkea).



2.- Bizitzan dihardugun krisi larria gogoan, herrian dagoen langabeziari aparteko arreta eskaini nahi diogu eta gaian aditua den teknikari batek zuzenduko lukeen enplegu saila sortzea proposatzen dugu. Azpikontraten murrizketa edo desagertzea bereziki eskatzen dugu, une honetan pribatizatuta dauden zerbitzuetarako kontratazio zuzenaren mesedetan, adibidez eskatu den arren martxan ipini barik dagoen eskilara mekanikoen mantenimenduan. Aparkaleku publikoak martxan ipintzea ere eskatzen dugu, gazte eta nerabeentzat aisialdirako guneak, berdeguneak eta horrelakoak sortzearekin batera. Horretarako Plan Nagusia berrikustea beharrezkoa da, etxebizitza gahiegi eraikitzeo gordetako orubeak berriz kalifikatu eta horretara egokitzeko. Horri lotuta, Txonta moduko inguru degradatuak berreskuratu beharko lirateke, argiztapena eta beste batzuk berrituta bertan bizi direnen bizi kalitatea hobetzeko. Amaitzeko, urteko aurrekontuaren zati bat proiektu hauek guztiak herritarren parte hartzearekin garatu ahal izateko gordeko genuke.

3.- Udalaren urteko aurrekontuaren %1'5 gutxienez euskararen erabilera suspertzeko erabiltzea peroposatzen dugu. Herrian elebitasuna pausoz pausoz finkatzen joateko programak bultzatuko genituzke eta euskararen zabalkunderako beharrezkoak diren diharduten eta azken urteotan diru-laguntzak murriztuta ikusi dituzten taldeei bitarteko gehiagorekin (ekonomikoak barne) lagunduko genieke.



Irribarreak
gaztetu egiten gaitu



Inplante eta Hartz-Estetikan adituak

Bista Eder Hartz Klinika

Bista Eder, 19 - behe

943 70 00 82 / 943 20 84 75

"Ezin ditzakegu gauzak aldatu beti berdina egiten badugu"

www.EstilGrafico.com

1920etik neurekin egindako komunikazio grafikoak

- SORMENA
- LAN TALDEA
- WEB-GUNEAK
- KATALOGOAK
- BULI KORPORALBOA
- IRAGARKIAK
- FRONTU AZIOA
- ARGAZKIAK
- ENPREK BIDEAK
- PACKAGING A

BILDU

1.- Azken legegintzaldia esker abertzalearen ilegalazioarekin hasi zen eta, ehundaka eibartarri hitza kendu ondoren, PSOEek gehiengo osoa lortu zuen. Horrek guztiz baldintzatu du azken 4 urteetako egoera eta udalak gehiengo faltsu hori baliatu du erabaki guztiak eibartarrek diotena entzun gabe hartzeko. Hirigintza arloan, natur-ingurune berrietan eraiki da, euskararen erabilera mailak behera egin du, gaztetxea bota dute, iazko sanjuanetan ez zen txosna gunerik egon... Laburbilduz, herriari bizkar emandako politika egin da. Horrez gain, Eibarren langabeziak gora egin du eta udalak egindako kudeaketan gabeziak agerian geratu dira Txonta eta Errebal moduko azuetan. Beraz, legegintzaldiari ikusten diogun alderik onena amaitzeaz dagoela eta garai berri batentzat momentua ailegatu dela da.



2.- Bildu Eibarrek bakearen eta herriari hitza ematearen alde egingo du beharra, beti ere ezkerreko ikuspegitik. Gatazka luzatzea eta herria errepresioaren bidez isiltzea nahi dutenen aurrean, Bilduk, Gernikako akordioaren gauzatzearen eta hegoaldeko lau herrialdeetarako autonomia estatutu baten bidez, Euskal Herria Europako herri aske bat izateko jardungo du. Herriari begira, hirigintza jasangarri baten aldeko apustua egiten dugu, Egazelai eta Bolinguan eraiki beharrean, Txonta edo Asua Errekan, alokairuan emateko etxebizitzak eraikitzea proposatzen dugu. Errebal eremu publiko anitza izatea da gure helburua, non merkatu plaza, parking-a, parke estalia eta kultur gune bat uztartuko diren. Eta autobus geltokia Matsarian egitea proposatzen dugu, horrela tren geltokiarekin batera komunikazio lotune bat izango genuke. Bestalde, gazteen hitza kontuan hartu eta sormena eta errespetua bultzatuko duen gune autogestionatu baten aldeko apustua egiten dugu. Eibarren jai herritar, euskaldun eta parekide batzuen alde egingo dugu, txosna gunea berreskuratuz. Azken batean, gure asmoa udalean politika egiteko beste modu bat bultzatzea da, non eibartarrok udalaren atak irekita izango dituzten eta erabakiak hartzeko orduan herritarren iritzia kontuan hartuko diren.



3.- Kontseiluak argitaratutako azken txostenaren arabera, euskararen erabilerak behera egin du Eibarren. Korrika 17a gogoan, euskara bihurtetik mingainera pasa behar dugu eta horretarako hainbat ekimen bultzatu nahi ditugu: eskoletako gurasoen arteko mintzalagun programak, etorkinak euskalduntzeko egitasmo bereziak, merkataritzarentzat laguntzak eta beste hainbat.

PP

1.- Ez da erreza azken legegintzaldia oso-tasunean lau lerrotan laburbiltzea. Alde positiboegi begira, asko egon dira. Sail ezberdinetan beharra eginda, emaitzak beti onak izan ez badira ere. Hezkuntza sailean lortu ditugun emaitzekin pozik gaude. Legegintzaldi honetan bakoitzean 21 umerentzat tokia dagoen Haurreskola bi inauguratu ditugu, Urki eta Amañako ikastetxeek lagatako jolastoki-zatietan eta horren inguruko oso harrera ona izan da. Une honetan 0 eta 2 urte bitarteko umeentzat 105 plaza daude. Hasierako Kualifikazio Profesionalerako Proiektua (PCPI) martxa betean ibili da eta une honetan Elgoibarren zeuden sukaldaritza eta aroztegi tailerrak gure herrira ekartzen dihardute. 18 eta 24 urte bitarteko ikasleak hartzen dituen Lantegi Eskola eta 25-55 urte bitartekoentzat dagoen enplegu tailerra ere martxa betean ibili dira. Besteak beste ikastetxe batzuetan konponketak egiten ibili dira, hala nola San Andres ikastetxeko fatxadan eta beste lan batzuk egiteko laga behar izan dira, aurrekonturik ez delako egon. Alde negatiboegi begira, sarritan gertatu den instituzioen arteko koordinazio eta informazio falta eta horrek alderdien artean une konkretuetan eragin dituen tira-birak aipatuko nituzke. Horrekin batera, udal aurrekontuak jasandako murrizketak proiektu eta inbertsioetarako murrizketak eragin ditu zuzen-zuzenean.



2.- Alderdi popularraren programak kudeaketan gardentasuna eskaintzen du, administrazio publikoak gardenak izan behar dira. Doitasuna, hau da, gutxiago erabili behar den gehiago egitea aldarrikatzen dugu, funtsezkoa ez dena ezabatuta. Eta gure nagusiek in solidarioa eta gazteekin arduratsua den gizartearen alde jardungo dugu. Eusko Jauriaritzaren legegintzaldiaren hasieran PSE eta PP alderdien artean adostutako ospital berriaren proiektua martxan ipiniko dugu. Herriko merkataritza suspertzeko instituzioen laguntzak bultzatuko genituzke. Errebalgo proiekturako adostasuna lortu eta horrela inguruko dendarietara mesede egitea bilatuko dugu. Txontaren proiektuari berriro helduko diogu. Industriak herrian geratu behar dira eta horretarako instituzioen laguntzak beharrezkoak dira. Eta urteetan eskatzen dihardugunaren bidetik, autonomoak diren nagusientzat etxebizitzak behar ditugu.

3.- Euskara gure hizkuntzetako bat da. Udalak betidanik bultzatu du bere erabilera, horretarako hainbat programa garatuta eta landuta.

Dauden planak onartu egiten dira. Erabilera indartzeko eta suspertzeko bideak aurkitu behar dira, bilatzen den emaitzaren kontrako lortzen dituzten inposizioak albo batera lagata. Euskarak denon arreta eta maitasuna behar du, ezin daiteke batzuk beste erasotzeko arma modura erabili.



denolan, s.l.
ENPRESA AHOLKULARITZA

Tf. (4 linea): 943 20 16 80
Fax: 943 20 18 41
denolan@denolan.es
Muzategi, 1 (EIBAR)

Tf: 943 741800 / Fax: 943 741760
P. M. Urruzuno, 31 (ELGOIBAR)


Siurlan
ASEGURU
ARTEKARITZA

Muzategi, 1 (EIBAR)
Tfnoa: 943 20 16 80 Faxa: 943 20 18 41

Larragest

INMOBILIARIA AGENTZIA

Bidebarrieta, 12
Tf. 690 610 715



Urizar eta Vodickova nagusi Eibarko Duatloian

KEBI TALDEKO PATXI URIZAR BILLABONATARRA (1h08'20") ETA FUENTE ALAMOKO RADKA VODICKOVA TXEKIARRA (1h14'42") nagusitu ziren domeka goizean jokaturako Eibarko 20. Duatloian. Egun horretako emaitzekin, Urizar bera nagusitu da Gipuzkoako Duatloi Sprint Txapelketan eta titulu bera eskuratu du Urgaziko Ainhoa Lendínez elgoibartarrak; taldea Antxintxika Triatloi Taldea debagoinatarra izan da garaile. Eibartarrei dagokienez, Ane Ziaran 23 urtetik azpiko onena izan zen eta gauza bera lortu zuen Andoni Lópezek kadete mailan.



Jose Antonio González garaile barbo arrantzan

DIANA ELKARTEAK ANTOLATUTA, SENIOR MAILAKO ZAZPI ARRANTZALEK JARDUN ZUTEN BERRIATUAN jokaturako barbo arrantza lehiaketan, guztira hamazazpi barbo harrapatuz. Jose Antonio González izan zen irabazlea, Juan Jose Amador-en aurretik; azken honek harrapatu zuen barborik handiena, kilotik gorakoa.



Urbat-eko igerilarien stage-a Santoñan

PRESTAKETEKIN JARRAITZEKO ETA TALDELANA INDARTZEKO ASMOAREKIN, URBAT-URKOTRIKIKO IGERILARIAK SANTOÑAN IZAN DIRA hiru egunetako stage-an. Igerilekua egunero

dastatu badute ere, izan dute tarterik beste aktibitateetarako: piragua, bizikleta, ping-pong-a, gimnasioa... Azken egunean makro-erleboia egin zuten, bertan bildu zirenen harridurarako.



Ipuruako gimnastak Euskadiko txapelketen aurrean

AZKEN AZTERKETETAN MURGILDUKO DIRA ASTEBURU HONETATIK AURRERA IPURUA KLUBEKO GIMNASTAK. Hasteko, bihar eskolarteko Gipuzkoako txapela izango da jokoan Ibarra eta hor izango da Ane San Martin, Nahia Bilbao, Olaia Golzarri eta Grazi Agirrek osatutako kadete mailako taldea. Egun berean aurtan Ipuruarekin jardun duten herri guztietako gimnastak elkartuko dira Mallabian, kiroldegian ikuskizuna eskaintzeko 11.30etatik aurrera.

Domekan, bestalde, klubeko hiru talde federatuak lehiatuko dira Hernanin taldekako Euskadiko txapelketan. Infantiletan Noelia Bedia eta Raquel Guerra izango dira, juniorretan Kristina Alegria, Irati Yarza eta Ane González eta seniorretan Olatz Laskurain, Olatz Ibaibarriaga eta Carmen Gamundi. Banakako txapelketa hilaren 25ean jokatu da Hernanin bertan eta horko emaitzek erabakiko dute zein joango den Espainiakoetara.



Ander Barrenetxea eibartarra bikain Aloñako Igoeran

249 ATLETA IZAN ZIREN GUZTIRA PROBA AMAITU ZUTENAK ETA BARRENETXEA (1h20'14") 7. POSTUAN HELMUGARATU ZEN, irabazlearengandik bost minutu eta erdira. Gure herriko beste lagun bi ere izan ziren mendi igoeraren VII. edizioan: Iñaki Zubiaurrek 137. postuan amaitu zuen eta Duni Cepedak 190.ean. Irabazlea Sestao taldeko Walter Becerra (1h14'51") izan zen, goitik behera nagusituz 15 kilometro eta erdiko lasterketan; Ana Condek (1h27'37"), emakumezkoen proba irabazteaz gain, igoeraren orain arteko marka hobetu zuen.



Alberto Ferreiro Euskadiko azpitxapelduna squash-ean

ALBERTO FERREIRO FINALA JOKATZEAREKIN KONFORMATU BEHAR IZAN ZUEN, AZKEN PARTIDU HORRETAN JAVI VILLANUEVAK ERRAZ IRABAZI ZION-ETA. Horraino ailegatzeko egindako bidean, bestalde, bide erraza izan zuen, kenduta finalerdietan egokitu zitzaion Aitor Yanguasen aurkako neurketa: hor nahikoa sufritu zuen, aurkariak ere, 2. zerrenda-buru izanda, joko azkarra erakutsi zuelako. Iruñean jokaturako txapelketan Sergio Salgado eta Jon Losada ere izan ziren: lehenengoak 6. postua eskuratu zuen eta bigarrenak 12.ean amaitu zuen.



Ferreiro eta Javi Villanueva txapelduna.

Waterpoloko infantilen garaipena


URBAT-URKOTRONIK WATERPOLO INFANTIL MAILAKO TALDEA ERRAZ NAGUSITU ZITZAION LEIOARI Sestaoko udal igierlekuan. Lehenengo zatian zapaldu zuten azeleragailua eibartarrek eta, behin 0-4 aurretik jarrita, partidua beste denbora guztian jolkaldiak entseatzeari emanda izan ziren, minutuak banatuz taldeki guztien artean, azkenean 7-13 irabazteko.

Senior mailako taldea Federazio Kopa prestatzen dihardu egunotan eta uztailaren 16an Mutriku jokatu den Beachpolo Torneoaren 5. edizioaren egitarauari azken ukituak dihardute egiten.



Txopitea eta Pakea Bolinagarentzat

HERRIKO ESKUBALOIAREN ALDE EGINDAKO LAN GUZTIAGATIK EMAN ZIOTEN aurreko aste-ko eguaztenean Txopitea eta Pakea saria 33 urtetan Arrateren gidaritzan izan den Iñaki Bolinagari. Bere aurretik Eibarko Txistularien Bandak, Rodolfo Epelde musikagileak, Juan San Martinek, Ramiro Larrañagak, Javier Agirresarobek eta Patxi Usobiagak jaso dabe Txopitea eta Pakea, beste batzuren artean. Bolinagari esker hartu zuen eskubaloiak indar berezia herrian eta urtean dira harrobiarekin lanean dihardutela, Euskal Herrian lehelengo lerroan kokatuz.



Azken ostikadak areto-foballean: bihar partidu bi eta etzi beste bat

ARETO-FOBALLEKO DEBABARRENAKO HIRU TALDEEK ETXEAN (UNIBERTSITATE LABORALEAN) jokatu dute aste-buru honetan: bihar, 10.30etan hasita, infantil mailakoek Arizmendi hartuko dute txapelketako play-offean eta, 11.45etatik aurrera, kadete mailako taldeak Zarautz jasoko du azken play-offeko norgehiagokan; etzi eguerdian, bestalde, Gipuzkoako 1. mailan diharduen taldeak Isu Lasarte izango du bisitari. Azken jardunaldian kanpoan jokatzea egokitu zitzaizen hirurei, garaipen bi eta porrot bakarrarekin: Lasakorain aurkari zutela, 1. taldeak 3-8 irabazi zuen eta kadeteenak 3-4; infantil mailan, baina, Erain gehiago izan zen (4-3).

Ciende jatea eta nusia denoi gustatzen saigulakal

KARRIKA

TABERNA
BESTA EBEN. 20

ostiraletik igandera afariak :

Etxean egindako pizzak
Entsaladak
Razioak

[HTTP://KARRIKA.COM](http://karrika.com)

Profesionalitate
Luzeratasun
Erakargarritasun

IBILALDIA

ONDARRU

maiatza^{ren} 29^{an}

AUTOBUS ZERBITZUA
IRTEN
10.00etan,
Ego Gaietik
BUELTATU
19.30etan
- 7 euro -

- J.A. MOGEL IKASTOLAKO GURASOEN ELKARTEA
- ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA



“Bat eginda lortuko dugu” plataforma sortu dute


EIBAR FOBALL TALDEARI JARDUNALDI BAKARRA GERATZEN ZAIO LIGA AMAITZEKO ETA, hortik aurrerakoak igoerako kanporaketak jokatzera eramango gaituzenez, zaleen artean “Bat eginda lortuko dugu - Volveremos” plataforma osatu dute, herenegun Ipuruan aurkeztu zena. Play-offeko lehen partidurako kamisetak egiteko asmoa dute, “Zu zara 12garren jokalaria” lemarekin. Bestalde, domekan Guijueloren aurka jokatu beharreko partidurako, Ipuruako bulegoetatik aparte, hainbat ta-

bernetan ere sarrerak erosi ahal izango dira bost eurotan (karneta erakutsita).

Eibar FT-ak igoera fasean kanpoan jokatu beharko dituen partiduetan, telebistak ematen baditu behintzat, udalak kosteatuko duen pantaila erraldoian ikusi ahal izango dira. Horrez gain, datorren barixakuan, hilaren 20an, taldearen bandera eskegiko da udaletxean. Bihar, bestalde, furgoneta batek Guijueloren kontrako partidua (domekan, 18.00etan) iragarriko du Debagoiena eta Debabarreneko hainbat herritan.

Eibartarrak maila igotzeko aukerarekin

1. ERREGIONAL MAILAKO IGOERA FASEA AMAITZEKO JARDUNALDI BIREN FALTAN, Eibartarrak-eko lehenengo taldeak maila igotzeko dituen aukerei eusten diete; hala ere, ez dute erraza izango eurak baino puntu bat gehiagorekin baitaude Oartzun B eta Lengokoak. Asteburu honetan Donostiako azken talde hau hartuko dute Unben eta, irabaziz gero, aurea hartuko liekete.



Tenis ikastaroak Unben udako programazioan

EIBARKO KIROL PATRONATOK TENIS KANPAINA IPINIKO DU MARTXAN UDAKO PROGRAMAZIOAN. Unben emango diren klaseak hartu nahi dituenak hogeituro ordaindu beharko dute astero (bazkide izanda) eta 30 bazkide ez bada. Klaseak ekainaren 27an hasiko dira, uztailaren 22an amaitzeko; izena emateko

epea astelehenean zabalduko da eta Unben egin beharko da.



EGOITZA NAGUSIA
Albarrana 20 - behe, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errausketa laber
Egiteko (Signo poligonar)
Partikular, multzo eta osaguri erosi zerbitzuak
Koroak - Eskelak - Utsuramako eskelak
Euskal Herri osoko ospitaleen hantze zerbitzu
Nazio eta Nazioarteko itzaldok

Mugica Ehorzketa
Funerariaren laber

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

ARTOLA

jatetxea

ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

Astelehenetik barixakura EGUNEKO MENUA **15 €**

Solomo carpaccio-a
Etxeko foie-a
Tomate entsalada ahuntz gaztarekin

Legatza laban

Solomilloa plantxan edo Buztan gisatua

Degustazio postrea edo Txokolate moussea edo Limo sorbetea cavarekin

Urteko ardoa, sagardoa edo beste

Tokia gordetzeko:
943206348

25 € + BEZ

JoserAutok ez zuen kalerik egin foball-zaletuen azken jardunaldian

ATZERA ERE JOSERAUTO IZAN DA TXAPELDUN FOBALL-ZALETUEN LIGAN, AZKEN JARDUNALDIAN ERE BESTE BATZUK IZAN EZ DUTEN SEGURTASUNA erakutsi baitu. Zailena aurreko jardunaldietan egina zuten JoserAutokoek, eurak irabazte-arekin batera Durangok eta Teknografikek kale egin baituzten; Teknografik oraingoan ere ez da gai izan Living Café menderatzeko eta, bina berdinduta, txapelketaren amaierara nahiko justu heldu dela erakutsi du. Azkenean, beraz, txapelkunek puntu bakarreko aldea atera diote Durangori eta hirukoa Teknografik-i.


Bihar, goizeko 10.30etatik aurrera, Kiroljokoa I. Saria izango da dantzan Eibarko eta Ermuko ligako irabazleen artean: Centro Gallego izango da eibartarren aurkaria.



Iaz txapeldun izan bazen, aurten zailagoa zuenean ondo eranizun du berriro JoserAutok.

Herriko pilotariak nagusi izan ziren Ipuruako frontoian

KLUB DEPORTIBOKO ORDEZKARIEK EMAITZA EZINHOBEEK LORTU ZITUZTEN ZAPATUAN kiroldegiko frontoian jokatuakoa jaialdian. Infantiletan, Arrillagak eta Narbaizak -hau neurketako onena izan zen- 18-3 irabazi zizkien Aretxabaletako Etxeberría eta Bengoari. Lau eta erdiaren barruan, Egañak ondo jokatu zuen, ba-



tezez ere ezkerrekin, eta Legazpiako Agirre garaitu zuen. Unamunzagak, bestalde, 22-17 irabazi zion Agirrebeñari Ikastolako frontoian.

Gaur, bestalde, 20.15etan hasita, lau eta erdiaren barruko partidu bi jokatu dira, Udaberrí Torneoaren barruan. Kadeteetan Deportiboko Larraurik eta Ruizek jardungo dute, biek ere Debako ordezkarien aurka.



Ruibal saskibaloia taldeak maila galdu du

RUIBAL ALQUILER DE VEHÍCULOS SASKIBALOI TALDEAK EZIN IZAN DU AZKENEAN MIRAKULURIK EGIN eta, asteburuko jardunaldian Donostiako Kostaskin 84-71 galduta, dagoeneko aukera barik geratu da mailari euste-

ko eta hurrengo denboraldian 3. mailan jardungo du; jardunaldi bakarraren faltan, garaipen bi ateratzen dizkiote aurretik dituenak.

Azken partiduan Arnaiz (18), Gergoti (16) eta Polanco (15) izan ziren saskiratzaile onenak.



Martin Vouillozek domina bi eskuratu zituen Euskadiko txapelketan.


Urre eta zilar bina eta brontze bat herriko atletentzat

DURANGON JOKATUTAKO JUBENIL ETA JUNIOR MAILETAKO EUSKADIKO TXAPELKETAN, KLUB DEPORTIBOKO ORDEZKARIEK BOST DOMINA eskuratu zituzten. Horrela, Martin Vouillozek lortu zituen urrezko biak, jauzi hirukoitzean eta disko jaurtiketan; azken horretan, gainera, 47 metroak gaindituta, bakarkako Espainiako txapelketan parte hartzeko txartela eskuratu du.

Zilarrezko dominak jabalina jaurtiketan jaso zituzten: Ibrahim el Moussaouik jubiletan eta Pello Osorok juniorretan. Azken domina, 3. postuari dagokion brontzezkoa, Asier Selas juniorrak lortu zuen 5.000 metroko lasterketan. Finaleratu sartu ziren ere Jon Cañedo juniorra (5.a 200 metrotan) eta Nestor Gisasola jubenila (6.a 200etan eta 7.a 100eko proban).

Debabarrenako Ruiz euskaldun onena Bidasoak Itzulian

SERGIO RUIZEK DENBORALDI BIKAINA ESKAINTZEN DIHAR- DU ETA, ASTEBURUAN AMAITUTAKO BIDASOAKO ITZULIAN, euskaldun onena izan da: 22 urteko elorriotarrak zazpigarren postuan amaitu du, 5. arengandik bost segundora eta afizionatu mailako 1. eta 2. urtekoentzat erreferente bihurtu da. Itzulia Valenciaga Memoriala irabazi zuen Igor Shalimov-ek bereganatu du, berriro erakutsiz etorkizun ezinhobea duela eta maila horretan jaun eta jabe dela.



Shalimov irabazlea.

Debegesa

Debabarreneko Garapen
Ekonomikorako Elkarteak

Sociedad para el Desarrollo
Económico de Debabarrena

**Debabarrena
Ekinean!**


Ekintzailearen Eguna 2011

Maiatzak 26

- 18:00-18:30.** Debabarrena Ekinean! Enpresen Azokari bisita.
- 18:30-18:40.** Ongi-etorria. Debegesaren eskutik.
- 18:40-19:10.** Hitzaldia "MENTORING ETA EKINTZAILETASUNA". Juan Luis Urcola, "Urcola Formación y Consultoría".
- 19:10-19:30.** 2011ko Debabarrena Ekinean! Errekonozimenduak. PLUS EKIMENA, IRAUNKORTASUNA eta TALDE-LANA.
**Debabarrenako enpresei zuzendutako BAI INDUSTRIARI!
Errekonozimenduaren banaketa.**
- 19:30-20:00.** Lunch-a TXIOKAren eskutik.

Debegesara etortzeko: **AUTOA PARTEKATU.** Sar zaitetz www.facebook.com/debabarrena.emprende helbidera eta jarri harremanetan Debegesara etorri nahi duten lagunekin. **Debabarrena jasangarriago bat sustatzen lagunduko duzu!**

Konfirmazioa eskertuko genizueke: ekintzaile@debegesa.com



Lifelong Learning Programme



BOZKATU  **hamaikabat**

Defibel Debarrenako Fibromialgia eta Astenia Kronikoa dutenen elkarteak antolatuta, maiatzaren 19an jaialdi berezia hartuko du Coliseo antzokiak. Herriko hainbat taldek ikuskizuna eskainiko dute, oraindik ere nahiko ezezaguna den gaitzaren inguruan beharrezko diharduen elkarteari laguntzeko asmoz. Elkarteko presidentek eman dizkigu horren inguruko argibideak.

LURDES BASTIDA, Defibel elkarteko presidentea:

"Askok isilik sufritzen dute fibromialgia"



- Nolatan antolatu duzue horrelako jaialdia?

Gurea irabazi asmorik gabeko elkarrekin da eta, diru-laguntzak jasotzen ditugun arren, urtean zehar antolatzen ditugun jarduerak eta bestelakoak ordaintzeko beste bide batzuetatik ere lortu behar dugu dirua. Horrez gain, jaialdiarekin elkarrekin eta bertan egindako lana ezagutzera eman nahi ditugu. Jaialdian Eibarko Balletak, Ipuruko Dantza Garaikide Taldeak, Biraka Dantza Taldeak, Lacasiun Latinerikako Dantzak eta Teatro Interior antzerki taldeak jardungo dute eta atsedendian Defibel-eko kide batek idatzitako bertsoa irakurriko da, jendeari fibromialgiaren inguruko informazioa helarazteko asmoz. Sarrerak 5 euro balio du eta nahi duenak aldeaz aurretik erosteko aukera dauka Zubi Gain, Trinkete, Leo, Txoko eta Guridi tabernetan, Marrodan bitxitegian eta elkartearen telefono zenbakira deituta (648977587).

- **Fibromialgiaren inguruko diagnostikoa egiteko zailtasunak ei dituzte oraindik ere. Horretan aldaketarik eman da?**

Aldaketak oso motel dihardute ematen, osasun zerbitzu

publikoan gaiarekin sentsibilizatuta dagoen erreumatologoa aurkitzea oso zaila izaten da oraindik ere eta, horregatik, kontsulta batetik bestera erabiltzen dituzte gaixoak, diagnostiko zuzena egiten duten arte. Horregatik, askok isilik sufritzen dute gaitza.

- **Badago kasu gehienetan errepikatzen den sintomarik?**

Muskulu, tendoi eta haragian sentitzen den mina izaten da eta gorputzean 18 puntu minbera sailkatuta dauzkate. Horrela hasitako mina kronikoa egiten joaten da eta hortik buruko minak, bertigoak, entzumenarekin eta ikusmenarekin lotutako arazoak eta beste batzuk sortzen doaz. Horrek depresioa eragin ohi dio gaixoari, lo egiteko arazoei batera astenia kronikoa agertzen da... Horiek guztiak jasaten dituztenak gure elkarrekin erakarri nahi ditugu, beste esperientziak zein eskaintzen ditugun terapiak (Tai Chi, Yoga, uretako errehabilitazioa, psikologoa, masaje leunak...) oso mesedegarriak direlako. Elkartearen egoitza Andretxean dago eta egunero 11.30etatik 13.30etara han egoten gara (943700828 telefono zenbakia).




"Baginaren bakarrizketak" gaur

EVE ENSLER-EN "BAGINAREN BARRAKIZKETAK" EKARRIKO DIZKIGUTE TXALO ANTZERKI TALDEKOEK COLISEO ANTZOKIRA gaur 20.30etan (sarrerak 7 eurotan salgai). Lan honetan Aitziber Garmendia eta Ainhoa Garai antzezleek jardungo dute elkarrekin beharrezko diharduen, Begoña Bilbaok zuzenduta. Emakumeen sexualitatea "lotsa barik, argi eta garbi" azaldu nahi duen lana adin, arraza, maila kultural eta sozial aniztasunak datozen 200dik gora اندrazkoei egindako elkarrizketetan oinarritzen da eta arrakasta ikaragarria izaten dihardu antzeztu den toki guztietan.

Markos Untzetaren lan berria kalean

MARKOS UNTZETA MUSIKARI EIBARTARRAK ASTE HONETAN BERTAN, EGUAZTENEAN AURKEZTU DU bere lanik berriena: "Mississippi" izenburua daraman bere hirugarren diskoa. Aurkezpena Donostian egin zuen, San Jeronimo kaleko Liburutegiko sotoan eta bertara joandakoek Untzetak zuzenean eskaini zituen abestiekin gozatzeko aukera paregabea izan zuten. Robert Johnson bluesman mitikoa jaiotako zela 100 urte betetzen diren honetan, musikari eibartarrak "Mississippi" izenburuko lana eman du argitarara, blues, gospel eta country musika estiloak gogoan. Datorren astea aurrera dendetan eskuragai izango da diskoa eta, horrez gain, Gaztelupeko Hotsak-en webgunean (www.hotsak.com) ere erosteko moduan aurkitu dezakezue (erosleentzat singlea opari eskaintzen dihardute bertan).



Bertso-afaria Bide Alden

JOAN DEN BARIXAKUAN ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK BERTSO-AFARIA ANTOLATU ZUEN URTERO MODUAN Bide Alde elkartearen. Eibar eta Lasarteko taldeak aurrez aurre, saio polita eskaini zuten Mikel Arrillaga eta Xabi Astigarraga (Eibar) eta Zigor Iriondo eta Beñat Iguaran (Lasarte) bikoteek. 40 bat lagunengatik aurrean jardun zuten bertsoari, Asier Ibaibarriagaren esanetara, barre algarra eta txalo artean.

Ipurterre lehiaketako sariak banatuta

EGUAZTEN GOIZEAN, HEZKUNTZA ESPARRUKO ARETOAN BANATU DITUZTE IPURTERRE IPUIN LEHIAKETAKO 17. EDIZIOKO SARIAK. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako lehiaketan jarraian aipatutakoak saritzea erabaki du epaimahaiak: Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailan, D ereduan La Salle Isasi ikastetxeko Ana Oiarzabal Gisasola eta B ereduan, berriz, Aldatzeko Miren Elorza Abascal; 3. eta 4. mailetan, D ereduan Juan Antonio Mogel ikastolako Maddi Berazarentzat izan da saria eta B ereduan Aldatzeko Miriam Rosalesentzat; eta 5. eta 6. mailetan, D ereduan Juan Antonio Mogel ikastolako Jone Arakistain izan da irabazlea eta B ereduan Aldatzeko Laura Alvarez. Nagusien artean, DBHko 1. eta 2. mailetarako ezarrirako atalean Itzio BHIko Sukaina Besri saritu dute eta 3. eta 4. mailetarako atalean ikastetxe bereko Iker Lluvia Hermosilla. Adin tarte horretan ez dute lanik aurkeztu B ereduan eta, beraz, ez da saririk banatu. Euskeraz idatzitako ipuinen inguruko lehiaketaren azken edizio honetan 1.069 lan lehiatu dira. Sariak banatzeko ekitaldia animatzen, bestalde, Kidam magoak jardun du eta umeez zein helduek primeran eman zuten goiza.




Txikitto! aldizkariko ale berezian kaleratuko dira ipuin irabazleak. / ANDER SALEGI

Antzezlan ugari eskolarteko erakusketan

DEBABARRENEKO ESKOLARTEKO XXVII. ANTZERKI ERAKUSKETAREN PROGRAMAK AURRERA DIRAU eta, ohikoa den moduan, talde profesionalen emanaldiak gure eskualdeko ikastetxeetako ikasleek prestatutako antzezlanekin tartekatzen joango dira. Eibarraren Coliseo antzokian eta Hezkuntza Esparruko aretoan taularitzen dituzte lanak, baina gure herritik kanpora ere, besteak beste, Mutrikun, Ermuan eta Ondarroan ere ikuskizunetako batzuk antzeztuko dira, urtero egin ohi den antzerki erakuske-

tak ikasleen lana beste herrietan ezagutzera emateko eskaintzen duen aukera aprobetxatuta. Talde profesionalak eskainiko dituztenen artean, datoren astean bertan Txalo Produzioak (Gipuzkoa) taldearen "Ipuinaren Bila" ikusteko aukera izango da martitzenean (15.00etan, Hezkuntza Esparruan) eta hurrengo egunean, berriz, Vain Producciones (Gipuzkoa) taldeak "Miauless" lana taularatu du (15.00etan, Hezkuntza Esparruan). Ikasleez gain, edozeinek erosi dezake ikuskizunetara joateko sarrera



taldearen astean bertan Txalo Produzioak (Gipuzkoa) taldearen "Ipuinaren Bila" ikusteko aukera izango da martitzenean (15.00etan, Hezkuntza Esparruan) eta hurrengo egunean, berriz, Vain Producciones (Gipuzkoa) taldeak "Miauless" lana taularatu du (15.00etan, Hezkuntza Esparruan). Ikasleez gain, edozeinek erosi dezake ikuskizunetara joateko sarrera

laburrak

BERBETAN-EKOAK BILBORA

Berbetan programan parte hartzen dihardutenek Bilbora irteera egingo dute bihar, eguna bertan eman eta, bide batez, Alde Zaharrean ordu eta erdi inguruko iraupena aurreikusita duen bisita gidatua egingo da. Bazkaldu ere han egingo dute. 20 bat lagunek hartuko dute parte irteeran eta joan-etorria trenez egingo dute. Hurrengo irteera ekainean egingo dute (4an), Elizondon ospatuko den Mintza Eguna joateko.

1941-EAN JAIOTAKOEN BAZKARIA


Aurten 70 urte bete edo beteko dituztenek ekainaren 4an elkartuko dira, Caserio tabernan elkarrekin bazkaltzeko. Parte hartzera animatzen direnak Untzagan elkartuko dira 12.30etan eta bazkaria 14.30etan hasiko da. Izena eman nahi duenak 50 euro sartu beharko ditu maiztaren 28a baino lehen, izen-abizena ipinita, Kutxako 0125620021 kontu zenbakian. Informazio gehiagorako 685784850 (Pello Bengoetxea), 615715926 (Luis Amuategi) edo 943203322 (Jose Jaio) telefonotara deitu daiteke.

eman botoa

bildu

Untzaga argazki estudio bihurtuko da

KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEAK ANTOLATUTAKO ARGAZKILARITZA MAIATZEAN-EKO PROGRAMAK AURRERA DIRAU eta honezkerok zabalik eta ikusgai daude horren barruan antolatutako erakusketa guztiak: Wentong Wang eta Feng Xiaohui argazkilari txinatarren lanak Untzagako jubilatuen etxean ikusgai daude; 30. Argizaiola Lehiaketako lanak, Klub




Hugo Rodriguezek ikastaroa emango du 21ean.

Deportiboan; Deportiboko Argazkilaritza Taldearen erakusketa kolektiboa, berriz, El Ambigú eta Portalea tabernen artean banatu dute; eta Argazkilaritza Maiatzean Argazki Lehiaketako lanen erakusketa El Corte Inglés-eko erakusketa aretoan. Eta aurreko barixakuaz geroztik eta hilaren 29ra bitartera, Gervasio Sanchez-en "Vidas minadas", M^a Gracia de la Hoz (Ojanguren 2010 Lehiaketako Ohorezko Saria) eta Joseba Ibarra (CEF 2010 Argazkilaritza Sari Nazionala) argazkilarien lanak Portalean ikus daitezke, erakusketa aretoan.

Bestalde, bihar goizean, 10.00etatik 14.00etara "Argazki-estudioa kalean" izenburuko tailerra egongo da martxan Untzagan, nahi duen guztiarentzat eta doan. Eta hilaren 21ean "Kaptura digitala eta Raw errebelatua" izenburuko emango du Hugo Rodriguezek, goizez eta arratsaldez Portalean.

Kzgunea Portalean dago orain

MARTITZENAZ GEROZTIK KZGUNEAK PORTALEAN, 2. SOLAIRUAN DAGO. Aurreikusita zegoen moduan, KZgunea aste honetan bertan itxi ditu bere sorreratik egoitza izan duen Karmen kaleko atea eta aurrerantzean kultur etxean bertan jarraituko du bere ohiko martxan, orain arte izan duen ordutegiari eutsita: astelehenerdik barixakura, 09.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 20.00etara. Jendea hartzeko tokia aldatu duen arren, KZgunea formakuntza arloko betiko programak zein bestelako zerbitzuak eskaintzen jarraituko du. Besteak beste "Internet + e-administrazioa Kzgunea ikastaroa", "Metaposta I: postontzia eta gordailu elektronikoa interneten", "Metaposta II: erabiltzailearentzako erabilgarritasunak", "Picnik", "Administrazio izapideak-NAN elektronikoa" eta "Twitter" izenburuko ikastaroak eskainiko dituzte datozen egunotan. Hileroko eskaintza zehatza ezagutzeko edo informazio zabalagoa izateko <http://www.kzgunea.net> helbidera jo daiteke edo, nahiago izanez gero, zuzenean bulegora jo eta bertako arduradunak azalduko dizue ikastaroen gaineko informazio osoa. Eibarko Kzgunearen telefono zenbakia 943208670 da eta arduradunarekin kontaktatzeko helbide elektronikoa, berriz, tutor.eibar@kzgunea.net



Euskal Jairako txartelak salgai

MAIATZEKO AZKEN ASTEBURUAN PILATUKO DIRA XLVI. EUSKAL JAIAREN EGITARAUKO JARDUERAK, maiatzaren 26an (eguna) hasi eta hilaren 29ra (domeka) bitartean. Urteroko moduan, jarduerak ugari antolatu dituzte Klub Deportibokoek eta, azken urteotako martxari jarraituta, aurten ere kantu-afaria (hilaren 28an, zapatuan) eta herri-bazkaria (hilaren 29an, domekan) egingo dira Untzagan, karpan. Kantu-afaria 22.00etan hasiko da eta, afalostean, 23.00ak aldera, herriko taldeetako ordezkariak taula gainera igotzen hasiko dira, kantuan jarduteko. Jainaga eta Narbaiza ere han izango dira, kantatu behar dutenei laguntzen eta, ondoren, errome-

ria girotzen. Afarirako zein domekako bazkarirako txartelak 14 (ume, ikasle eta langabe-tuentzat) eta 20 eurotan salgai daude honezkerok Deporren eta erosteko azken eguna maiatzaren 22a izango da.

Joseba Tapiaren kontzertua

Bestalde, hilaren 20an Joseba Tapia Coliseoan izango da Errepublikako kantak eskaintzeko emanaldian. Kontzertua 20.30etan hasiko da eta sarre-ralde aurretik erosi nahi duenak horretarako aukera dauka, 5 eurotan, Coliseoko ohiko aurrealmentan (lehiatilan, emanaldi egunetan eta bestela interneten www.kutxa.net helbidean edo 943001200 telefono zenbakira deituta).


Mikel Arrillaga G-puntuan

AURREKO ASTEBURUAN HASI ZEN G-PUNTUA, 2011-KO GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA, Orion jokatu ziren goizeko eta arratsaldeko saioekin. Abiatu berri den txapelketan eibartar bakarrak dihardu parte hartzen: Mikel Arrillaga Bereziartua, besteak beste Hamaika Bertute proiektuko partaidea eta Eibarko Hankamotzak bertso eskolako kidea den bertsolaria. Eibartarrak sailkapen fasea asteburu honetan, bihar bertan hasiko du Mutrikun, Zabel Kultur Etxean (11.30etan). Iban Narbaizak aurkeztuko duen saioan, Arrillagarekin batera Egoitz Eizagirre Aduriz, Gorka Maiz Alustiza, Jokin Uranga Isuskiza, Joseba Andoni Agirre Orbegoza eta Oihana Iguaran Barandiaran izango dira. Epaileak, berriz, Zigor Leunda, Iñigo Legorburu, Egoitz Unamuno eta Iban Sukia izango dira. Horren ostean eta sailkapen fasean aurrera eginez Aretxabaletan jardun beharko du, maiatzaren 29an (17.30etan Arkupe Kultur Etxean).



laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, LIDE Alberdi, zure bigarren urtebetetzian. Muxu haundi bat etxekuen partez gure printzesarentzat.




Zorionak, MARCOS ANTONIO, 11n sei urte egin zenduazelako. Aitta, ama, aitxitxa-amama, aitta-amabixi eta izeben partez.



Zorionak, AMAIA Bordas, gaur urte bi egitten dozuz-eta. Aitta, ama, Gorka neba eta Ane lehengusiniaren partez.




Zorionak, GORKA, domekan lau urte beteko dozuelako. Familixa eta Malenen partez.



Zorionak, IBAI, atzo urtebete egin zenduan-eta. Muxu haundi bat amatxo eta aittaxoren partez.




Zorionak, KATTALIN Arrasate Lasa, gure etxeko printzesa, astelehenian lau urte egingo dozuz-eta. Aitxitxa eta amamaren partez.




Zorionak, ANE, gaur lau urte betetzen dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, IZARO, zure zazpigarren urtebetetzian. Ondo pasa eguna. Etxekuen partez.



Zorionak, DANEL López Egaña, haraiñegun lau urte bete zenduaz-eta. Aitxitxa-amamaren partetik.



Zorionak, JONE Muniategi, atzo zortzi urte egin zenduazelako. Familixaren partez.



Zorionak, AITXITXA eta AMAMA, astelehenian 58. ezkontza urteurrena ospatu zenduen-eta. Muxu haundi bat familixa guztiaren partez.

zinea Coliseoan



"Fast & Furious 5"

Zuzendaria: Justin Lin
Aktoreak: Elsa Pataky, Vin Diesel, Paul Walker, Jordana Brewster

13an: 22.30
14an: 17.00, 19.45 eta 22.30
15ean: 17.00 eta 20.00
16an: 20.30



"No tengas miedo"

Zuzendaria: Montxo Armendariz
Aktoreak: Michelle Jenner, Lluís Homar, Belén Rueda, Nuria Gago


13an: 22.30
14an: 17.00, 19.45 eta 22.30
15ean: 17.00 eta 20.00
16an: 20.30



"Sin identidad"

Zuzendaria: Jaime Collet-Serra
Aktoreak: Liam Neeson, Diane Kruger, Bruno Ganz, Frank Langella


13an: 22.30
14an: 19.45 eta 22.30
15ean: 20.00
16an: 20.30



"Arthur y la guerra de los mundos"

Zuzendaria: Luc Besson
Pertsonaiak: Selenia, Arthur, Granny, Prince Betameche

14an: 17.00
15ean: 17.00



Zorionak, RAFAELA eta JAVIER, gaur 50 urte dira-eta ezkondu zifaziela. Etxekuen partez.

JAOTAKOAK

- Julen Fernández Mujika. 2011-IV-30.
- Nahia Rosario Peláez. 2011-V-2.
- Imran Basri. 2011-V-3.

HILDAKOAK

- Alejandro Díez Gómez. 95 urte. 2011-V-3.
- Domingo Mandiola Etxeberria. 86 urte. 2011-V-7.
- Marta Carrera Palacios. 37 urte. 2011-V-7.
- Asun Anguera Illaramendi. 2011-V-8.
- Ines Alustiza Aierbe. 93 urte. 2011-V-8.
- Fernando Hinojosa Romero. 81 urte. 2011-V-8.
- Benedicta Alustiza Leturiondo. 86 urte. 2011-V-10.

DENBORAPASAK

	5	3	8	4	6	1
			1	6	9	
3						7
7	1		4	9		2
4						8
		6	5	7		
8	6	9	1	4	7	

horoskopoa

ARIES

Udaberriak ondo egin dizula nabaritzen zaizu! Pozik, gogotsu eta indarrez beteta zaude. Aprobetxatu sasoi hau.

TAURUS

Inguruan duzun baten bat gezurretan dabil. Ondo asmatutako gezurrak dira eta antzematea kostatuko zaizu. Kontuz!

GEMINI

Urduri zaude azkenaldian eta asko kostatzen zaizu konzentratzea. Saiatu lasaitzen, bestela ez zaizkizu gauzak ondo irtengo.

CANCER

Barrean denbora asko zenuen hori bota eta erabat lasai geratu zara. Une egokia topatzen saiatu bazara eta onerako izan da.

LEO

Zorrak kitatzea tokatzen zaizu. Iraganeko kontuak atzean laga eta hutsetik hasteko momentua da, bide berria zabaltzeko ordua.

VIRGO

Badakizu bera zure aldamenean egongo dela edozertaroko. Baina badakizu ez dagoela txarto eskerrak ematea.

LIBRA

Egoera arraroa biziko duzu domekan, nahiko deserosoa. Baina lasai, azkarra zara eta erantzun egokia topatuko duzu.

SCORPIUS

Zure traza handia duen norbait ikusi eta ispilu baten aurrean zaudela pentsatuko duzu. Lasai: ez da klon bat! Halakorik!

SAGITTARIUS

Euskal Jairako prestatzen? Aurten ere ederki pasatuko duzu abestu, dantzatu eta dena delakoan. Hori bai, ajea demasa izango da.

CAPRICORNIUS

Zure lekuan egotea gustatuko litzaioke jende askori eta hortaz ohartuko zara. Horrek, duzun guztia baloratzen lagunduko dizu.

AQUARIUS

Gauza txar guztiak zuri gertatzen zaizkizula uste duzu, baina errealitatea da edozerengatik kexatzen zarela da. Aldatu!

PISCIS

Ezin ukatuko duzun eskaintza jasoko duzu. Bueltak emango dizkiozu buruari, baina onartuko duzu. Zorte zurekin izango da.

Barixakua 13

MUSEOA

19.00.- J.B. Gisasola Musika Eskolako gitarra ikasleen emanaldia, Ana Caballero irakasleak zuzenduta, museoaren 2. urteurrena ospatzeko. Armagintzaren Museoa.

DIA DAS LETRAS GALEGAS

19.00.- Galiziako Jai Batzordearen taberna ofizialki irekiko dute. Os Galaicos gaita taldearen kalejira. Herri kirolak: aizkolariak (Ernesto Ezpeleta "Bihurri", Hodei Ezpeleta, Jesus Gisasola "Zelai II" eta loritz Gisasola "Zelai III").

22.00.- Verano Azul orkestra, goizalderarte. Urkizuko parkean.

JAIXAK HERRIXAK HERRIXANDAKO

19.30.- Sanjuanetarako proposamenak egiteko bilera irekia, Jaixak Herrixak Herrixandako-k deituta. Monteka pareko parkean.

ANTZERKIA

20.30.- "Baginaren bakarriketak" (Txalo Produzioak). Sarrera: 7 euro. Coliseoan.

Zapatua 14

ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

10.00.- "Argazki-estudioa kalean" (14.00ak arte). Nahi duenarentzat. Untzagan.

IKASTURTEARI AGUR

11.00.- Ikasturteari agur ekitaldia (2. batxilergoko ikasleak) La Salle Azitaingo ikastetxean.

DIA DAS LETRAS GALEGAS

11.30.- Umeendako "txabe" jaurtiketa (8-13 urte bitartekoentzat).

12.30.- Igel-jaurtiketa.

16.00.- "Txabe" jaurtiketa (nagusientzat).

18.30.- Galiziako dantza eta musika erakustaldia, As Burgas Galiziako Kultur Etxeko OS Galaicos taldearentzat.

20.00/21.00.- Dantza, Compostela orkestarekin.

23.00.- Berbena, Compostela orkestarekin, goizaldera arte. Urkizun.

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

17.00.- Dantzaldia, Ego-gain Gerontologia Zentroan.

KALEETAN KANTUZ

19.30.- Kaleetan Kantuz-ekoan irteera. Untzaga.

Domeka 15

ISIDRO DEUNA

11.30.- Meza, bertsolari eta trikitilariekin. Prozesioa, Usartza Txistulari Bandak lagunduta, aureskua Kezka dantza taldearen eskutik. Bailarako produktu dastaketa.

12.30.- San Isidroetako IX. Aizkolari Txapelketa eta harrijasotzaileen saioa.

14.30.- Bazkaria, Kantabria jatetxean.

Bertsolariak eta trikitilariak.

17.30.- Idi-demak. Arraten.

DIA DAS LETRAS GALEGAS

11.45.- Os Galaicos taldearen ongietorria Eibarko trikitilarietara Untzagan. Urkizuraino kalejira.

12.30.- Kezka dantza taldeari ongietorria eta euskal dantzen erakustaldia. Urkizun.

14.00.- Castelaoren oroitariari lore-eskaintza.

15.00.- Herriko agintari, Irmandadeko kide eta beste lagun askorekin bazkaria, Urkizuko parkean (jai batzordearen taberna aldamenean).

18.30.- Dantzaldia Superfama orkestarekin.

22.00.- Jai batzordearen taberna itxi eta jaiak agurtuko dituzte.

Astelehena 16

TAILERRA

12.00.- Autoenplegu tailerra, Debegesak antolatuta. Kzgunean (Portalean, 2. pisuan).

ANTZERKIA

15.00.- Zaldupe Ondarroako eskola publikoko ikasleen emanaldiak Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketaren barruan. Hezk. Esparruan.

Martitzena 17

IKASTEN

10.00.- "La literatura picaresca del siglo XVI y XVII", Jose Domingoren eskutik. Armeria Eskolan.

ANTZERKIA

15.00.- "Ipuinaren bila" (Txalo Produzioak, Gipuzkoa), Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketaren barruan. Hezkuntza Esparruan.

20.30.- "... Y lloverá?" (Banarte Antzerki Taldea, Bizkaia), Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketaren barruan. Sarrera: Euro bi. Coliseoan.

Eguaztena 18

IKASTEN

10.05.- Mendi ibilaldia: Deba-Zumaia. Irteera Ardantzako tren geltokitik.

ANTZERKIA

15.00.- "Miaules" (Vaiven Producciones, Gipuzkoa), Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketaren barruan. Hezkuntza Esparruan.

MUSEOA

16.00/20.00.- Museoen Nazioarteko Eguna: "Oroitzapenaren liburua". Armagintzaren Museoa (Portalean).

Eguena 19

IKASTEN


10.00.- "Regeneración de terrenos contaminados", Oihana Barutiaren eskutik. Armeria Eskolan.

ANTZERKIA

15.00.- San Andres Herri Ikastetxeko ikasleen emanaldiak. Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketaren barruan. Hezkuntza Esparruan.

MUSEOA

16.00/20.00.- Museoen Nazioarteko Eguna: "Oroitzapenaren liburua". Armagintzaren Museoa (Portalean, 5. pisuan).



erakusketak

– Maiatzaren 29ra arte

GERVASIO SANCHEZ-en “Vidas minadas”, **M^a GRACIA DE LA HOZ** (Ojanguren 2010) Lehiaketako Ohorezko Saria) eta **JOSEBA IBARRA** (CEF 2010 Argazkilaritza Sari Nazionala) argazki erakusketak. *Portalean.*

– Maiatzaren 31ra arte

WENTONG WANG ETA FENG XIAOHUI argazkilarien lanak. *Untzagako jubilatuen etxean.*
30 ARGIZAIOLA LEHIAKETA. Klub Deportiboan.
DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEAren erakusketak kolektiboa. *El Ambigú eta Portalea tabernetan.*

ARGAZKI LEHIAKETAko lanen erakusketak. *El Corte Inglés-eko erakusketak aretoan.*

mintegiak

– **Euskararen Transmisioari buruzko mintegia.**

Noiz eta non: Maiatzaren 25ean (08.45etatik 13.30etara eta 15.00etatik 17.30etara), *Portalean.* Informazioa eta izen-ematea: ...eta kitto! Euskara Elkarteak (943200918 telefonoan).

ikastaroak

– **Gurasoendako ikastaroa.**

Noiz eta non: Maiatzak 31, ekainak 2, 6 eta 9, 18.00etatik 20.00etara *Portalean.* Informazioa eta izen-ematea: Maiatzaren 16tik 25era *Pegoran.*

– **“Autocuidado: cuidarse para cuidar”.**

Noiz eta non: Ekainak 6, 7, 8, 9 eta 10, 15.00etatik 17.00etara *Portalean.* Izen-ematea: *Pegoran.*

– **UEUko udako ikastaroak.**

Noiz eta non: Ekainaren 27tik uztailaren 1era eta uztailaren 11tik 15era (*Eibarren*), uztailaren 4tik 6ra (*Baionan*) eta uztailaren 18tik 20ra (*Iruñean*). Informazioa: www.ueu.org / 943821426.

– **Internet tailerra.**

Noiz eta non: Hilaren 23an hasita, lau astelehen goizetan (praktikak martitzen goizetan), *Untzagako jubilatuen etxeko zibergelan.* Izen-ematea eta informazioa: *Zibergelan (Untzagako jubilatuen etxeko 1. pisuan), 943701921 telefonoan edo ciberaulaeibar@yahoo.es helbidean.*

EGO IBAR ZINE KLUBA
17.30 eta 21.00.-

“De dioses y hombres”
(Zuz: Xabier Beauvois). Sarrera: Euro bi. Hezkuntza Esparruan.

HITZALDIA

17.00.- Altxoa alargunen elkarrekin antolatuta, alarguntza, testamentu, herentzia... legeen ingurukoak azaltzeko hitzaldia. *Portalean.*

DANBORRADA

19.00.- Amañako jaietarako, umeen danborradarako entsegua (helduena 20.00etan hasiko da). Amañako herri ikastetxean.

farmaziak

13, barixakua

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

14, zapatua

EGUNEZ **Las Heras** (Sostotarren, 10)
GAUEZ **Las Heras** (Sostotarren, 10)

15, domeka

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

16, astelehena

EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

17, martitzena

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

18, eguaztena

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

19, eguena

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

20, barixakua

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

telefono jakingarriak

SOS delak112
Pegora010
Udaletxea943 70 84 00
Portalea943 70 84 39
Udaltzaingoa.....943 20 15 25
Mankomunitatea943 70 07 99
Debegesa.....943 82 01 10
KIUB943 20 38 43
Epaitegia943 03 34 00
Iberdrola901 20 20 20
Naturgas902 12 34 56
DYA Larrialdiak.943 46 46 22
Gurutze Gorria..943 22 22 22
Mendaro osp.....943 03 28 00
Anbulategia.....943 03 25 00
Torrekua943 03 26 50
Errepideak.....902 11 20 88
Ertzaintza943 53 17 00
Eusko Tren902 54 32 10
Pesa902 10 12 10
Taxiak.....943 20 30 71
.....943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DO-NOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Armagin kalean, Txal-txa-Zelai ondoan. 3 logela, egongela, sukalde, komuna eta ganbara. Bizitzera sartzeko moduan. Prezio ona. Tel. 675-700864.
- Pisua salgai Errebal inguruan. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Bizitzera sartzeko moduan. 200.000 euro (aste honetan 140.000). Tel. 676-724966.
- Pisua salgai Eibarren. 3 logela, egongela, sukalde, komuna eta ganbara. Oso argitsua, berriak eta bizitzera sartzeko moduan. Garajea aukeran. Prezio oso interesgarria. Tel. 627-084503 eta 943-127140.

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruetan. Logela bikoa. 400 euro inguru ordaintzeko prest. Tel. 672-693035 eta 649-313548.
- Gaztea behar da pisua konpartitzeko Eibarren. Tel. 656-734810 (Alazne) eta 650-771995 (Jone).
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruetan. Tel. 693-950032.
- Pisua alokagai Torreveijan uda parterako. Hondartza minutu bira. 2 logela, egongela-jangela-sukalde eta komuna. Tel. 943-201077.
- Pisua alokagai Ermuan. Tel. 658-735514.
- 4 logelako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Erreferentziak. Tel. 685-380585.
- 3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 626-584512.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garajea salgai Amaña 14an. Tel. 635-719595.

3.2. Errentan

- Garajea hartuko nuke alokairuan Ipuruako dorreen inguruan. Tel. 620-917212.
- Lokala alokagai Amañan. 180 m². Argitsua eta ibilgailuarentzako sarre-ronarekin. Tel. 605-771570.
- Txontan lokala alokagai. 485 m². Behiko solairua eta kamioiarentzako sarrera. Prezio onean. Tel. 943-202729 eta 650-022371. Bixente.
- Garaje itxia alokagai Matsarian, Estazioa aurrean. 3x5 metrokoa, labareroarekin. Tel. 610-395630.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 685-761979.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Klimatizazio, iturgintza eta elektrizitatea teknikaria eskaintzen da lan egiteko. Tel. 669-034991.
- Gizarte Hezkuntza ikasketak egiten diharduen guraso euskaldunak umeak zaindiko lituzke. Tel. 676-392055.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 635-355168.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako. Tel. 673-875123.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 655-384877.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako eta gozogle moduan. Tel. 652-587259.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Orduka. Tel. 645-366850.
- Neska eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko, garbiketarako eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 671-343612 eta 943-531931.
- Gizona eskaintzen da txofer jarduteko edo baserrian lan egiteko. Tel. 671-343612 eta 943-531931.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziekin. Tel. 699-813826.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 626-068463.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 689-935379.
- Neska eskaintzen da goizetan umeak zaintzeko. Tel. 677-591982.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-445088.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Urte biko esperientzia. Tel. 652-587259.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 605-129530.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko (gauetz ere bai) eta etxeko garbiketarako egiteko. Autoarekin. Tel. 653-723095 eta 943-254260.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakume euskalduna eskaintzen da etxekolanak egiteko. Tel. 687-114707.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 943-200994 eta 617-571210.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta etxeko lanetarako. Tel. 655-077394.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta etxeko lanetarako. Tel. 665-301550.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta etxeko lanetarako. Tel. 635-187901.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile edo kamarera moduan, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 608-474923.
- Mutila eskaintzen da terrazan edalontziak jasotzeko, garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 649-086057.
- Mutila eskaintzen da terrazan edalontziak jasotzeko, garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 696-450343.
- Mutila eskaintzen da terrazan edalontziak jasotzeko, garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 648-716291.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile moduan eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Erreferentziak. Dendan esperientzia. Tel. 943-172816 eta 605-720298. Eva.
- Neska eskaintzen da tabernan eta sukaldean lan egiteko. Tel. 605-147304 eta 943-172816. Paola.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 608-376387.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 679-910991.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak ordutako zaintzeko. Tel. 629-473105.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 680-969415.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 646-682575.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 679-912841.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko orduka. Tel. 648-603029.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 655-077394.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 617-727744.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 651-836353.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 674-716699.

4.2. Langile bila

- Neska euskalduna behar da umeak zaintzeko. Deitu 20.00etatik aurrera. Tel. 699-902800.
- Kamarera/o behar da Guridi tabernarako. Tel. 605-717493.
- Kamarera/o behar dira asteburuetarako. Autoarekin. Tel. 677-638184.
- Kamareroa behar da taberna baterako. Tel. 943-031253.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Alemanierazko klaseak ematen ditut haur, gazte eta helduentzat. Tel. 647-275374.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Ohe artikulatua salgai. Ia berria. Tel. 666-062285.
- Somierra eta koltxo tolesgarriak (0'80koak eta erabili gabeak) eta egurrezko markodun ispilua (1'60x0'50) salgai. Prezio erdian. Tel. 943-120308.
- "Sojabella" esne begetala egiteko makina salgai. Gutxi erabilia. 75 euro. Tel. 630-448560. Aitziber.
- Altzoan umea eramateko "Easy Care" fularra salgai. Erabili gabe. 55 euro. Tel. 630-448560. Aitziber.
- Karateko kimonoa eta Adidas markako eskularruak salgai. Erabili gabe. 50 euro. Tel. 630-448560.
- Motorzalearen ekipamendua salgai. L tamainakoa gutxi gorabehera. Tel. 628-043195.
- Bizikleta estatikoa salgai. Ia berria. 100 euro. Tel. 647-275374.
- Kutxatza izozkailua salgai. Gram hiru izarekoa. Tapa transparenteak. 2x0'9 m. Oso egoera onean. Tel. 943-207873.

nik egun distiratsua
babesarekin

zure graduatutako eguzkitako betaurrekoak **59** €
-tik aurrera

* Galdetu promozioaren baldintzak dendan

Ikusmen eta entzumen osasunean adituak
audifonoen egokitzapena eta entzumen azterketak

Errebal, 14 20600 Eibar
GIPUZKOA 943 202 137
plazaola@naturaloptics.com


natural optics
PLAZAOLA
naturaloptics.com

> **klinika kortazar**

Gidabaimenak eta armabaimenak

Eibar
kontuan hartu

BOZKATU
MIGUEL DE LOS
Toyos



Berak bakarrik aparkatzen du eta askoz gehiago,.....



Auto bat baino zerbait gehiago ipiniko duzu martxan

NUEVO FORD FOCUS
nuevofordfocus.es



Feel the difference

Erreserbatu zure proba 943.20.76.50 telefono zenbakian

Maiatza **OUTLET** Kondia

2011/05/16tik 2011/05/27ra arte

Kopuru mugatuan **OUTLET** prezioak

Estrenatu zure Ford-a

bakarrik **9.419,00 €** * ordainduz

Aire Egokituaz eta
CD MP3 Irratiaz ekipatua

*
€ zentimo bakar bat ere ez gehiago

ZORATUTA GAUDE!!!!

Automóviles KONDIA



Avda. Otaola, 22. Eibar
943 207 650
Santamaña, 19. Iruña-Durango
948 815 569

Feel the difference



Ziorla Autoak (BAIMENDUTAKO TAILER ETA KARROZERIA)